

# BILBO

## MAPA SOZIOLINGUISTIKOA 2021

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Aurkibidea

## BILBOKO MAPA SOZIOLINGUISTIKOA

<b>0. SARRERA</b> .....	<b>03</b>
<b>1. BIZTANLERIA, HIZKUNTZA EREDUAK ETA HELDUEN EUSKALDUNTZEA</b> .....	<b>05</b>
1.1. Bilboko biztanleriaren bilakaera eta egitura .....	05
1.2. Atzerriko immigrazioa .....	10
1.3. Irakaskuntza ez unibersitarioko hizkuntza-ereduak.....	14
1.4. Helduen euskalduntzea .....	18
<b>2. HIZKUNTZA-GAITASUNA</b> .....	<b>20</b>
2.1. Hizkuntza-gaitasuna: Bilbo, Bizkaia eta EAE .....	21
2.2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera.....	23
2.3. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera: Bilbo.....	25
2.4. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera.....	27
2.5. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera: Bilbo.....	30
2.6. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera sexuaren arabera .....	31
<b>3. GAITASUN ERLATIBOA: ERRAZTASUNA</b> .....	<b>32</b>
3.1. Gaitasun erlatiboa: Bilbo, Bizkaia eta EAE .....	33
3.2. Gaitasun erlatiboaren bilakaera .....	34
3.3. Gaitasun erlatiboa adinaren arabera: Bilbo.....	37
3.4. Gaitasun erlatiboa sexuaren arabera: Bilbo .....	38
<b>4. LEHEN HIZKUNTZA</b> .....	<b>39</b>
4.1. Lehen hizkuntza: Bilbo, Bizkaia eta EAE .....	40
4.1.1. Lehen hizkuntzaren bilakaera .....	42
4.1.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera: Bilbo.....	44
4.1.3. Lehen hizkuntza adinaren arabera, bilakaera .....	46
4.1.4. Lehen hizkuntza sexuaren arabera: Bilbo .....	48
4.1.5. Lehen hizkuntza sexuaren arabera, bilakaera.....	49
4.2. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera: Bilbo, Bizkaia eta EAE .....	50
4.2.1. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera, bilakaera .....	52
4.2.2. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera: Bilbo.....	54
4.2.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera, bilakaera .....	55
4.2.4. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera: Bilbo .....	58
4.2.5. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera, bilakaera.....	59

4.3. Familia bidezko hizkuntza transmisioa, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera: Bilbo, Bizkaia eta EAE .....	60
---	----

**5. EUSKARAREN ERABILERA..... 64**

5.1. Euskararen erabilera etxean: Bilbo, Bizkaia eta EAE .....	65
5.1.1. Euskararen erabilera etxean bilakaera.....	67
5.1.2. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera: Bilbo .....	70
5.1.3. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera, bilakaera.....	71
5.1.4. Euskararen erabilera etxean sexuaren arabera: Bilbo .....	72
5.1.5. Euskararen erabilera etxean sexuaren arabera, bilakaera .....	73
5.2. Euskararen erabilera orokorra: Bilbo, Bizkaia eta EAE .....	74
5.2.1. Euskararen erabilera orokorraren bilakaera .....	76
5.2.2. Euskararen erabilera etxean (familian): Bilbo, Bizkaia eta EAE .....	78
5.2.3. Euskararen erabilera lagunartean eta eremu formalean: Bilbo, Bizkaia, EAE ...	80

**6. EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA ETA BESTELAKO IRITZIAK. 82**

6.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera: Bilbo, Bizkaia eta EAE.....	83
6.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera .....	87
6.3. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza gaitasunaren, sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera: Bilbo .....	90
6.4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza gaitasunaren, sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera: Bizkaia.....	93
6.5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza gaitasunaren, sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera: EAE .....	96
6.6. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi: Bilbo .....	99
6.7. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi: Bizkaia.....	100
6.8. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi: EAE .....	103

**7. LABURBILDUZ..... 105**

Eskuarteau daukazu txosten hau, Bilboko Udalak egindako eskaerari erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak landu du, Bilboko egungo euskararen egoera aztertzeo helburuarekin. Besteak beste, bilbotarren euskara-gaitasuna zelakoa den, bilbotarrek zer lehen hizkuntza daukaten, euskara egiteo zer erraztasun daukaten, euskara eremu ezberdinetan zenbat erabiltzen duten eta euskararekiko zelako jarrera daukaten ezagutu nahi izan da.

Txosten hau osatzeko, batik bat, hiru datu iturritatik jaso da informazioa<sup>1</sup>:

- EAEko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua eta Estatistika.
- Inkesta Soziolinguistikoa.
- EAS (Euskararen Adierazle Sistema).

## **1.- EAEko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua eta Estatistika.**

Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak hiru aldagai aztertzen dituzte: **euskara-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera**.

Euskal Autonomia Erkidegoko emaitzak Mapa Soziolinguistikoan jasotzen dira, unibertsoa EAEko **5 urte edo gehiagoko biztanleek** osatzen dutelarik (2.110.702 pertsona 2021ean, gutxi gorabehera). Estatistika ofiziala da, eta 020702 kodearekin dago jasota Euskal Estatistika Planean. Adierazitako hiru aldagaez gain (euskara-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera), beste bi aldagai sintetiko jorratzen ditu Mapa Soziolinguistikoak: **BILA indizea** (euskara-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko gurutzaketa) 1986tik, eta **ERABIL indizea** (euskara-gaitasunaren, lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren arteko gurutzaketa) 1991tik.

EAEen 1981tik jasotzen da euskara-gaitasunaren aldagai, 1986tik lehen hizkuntzarena eta 1991tik etxeko erabilerarena. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen bilakaera berri izateko ikuspegi zabala ematen digu: hizkuntza-gaitasunaren kasuan hogeita hamar urtekoa, lehen hizkuntzaren kasuan hogeita bostekoa eta etxeko erabilerarenean hogeikoa.

---

<sup>1</sup> Zenbait datu Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak, EUSTATEk eta HABEk eskainitakoak dira.

## **2.- Inkesta Soziolinguistikoa.**

Inkesta soziolinguistikoak euskararen egoera eta bilakaera aztertzen ditu, eta honako aldagai hauek jorratzen ditu: **hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, eremu formaletan...) eta euskararen sustapenari buruzko jarrera.**

Inkestaren unibertsoa: Inkesta soziolinguistikoak Euskal Herriko **16 urte edo gehiagoko biztanleak hartzen ditu kontuan** (2.680.000 pertsona gutxi gorabehera 2021ean).

Ikerketaren diseinua, laginaren prestaketa, datuen ustiaketa eta lanketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin du.

Inkesta Soziolinguistikoa bost urterik behin egiten da, eta lehenengoa 1991n egin zen. Hortaz, azken 30 urteetan euskarak izan duen bilakaera ezagutzeko aukera ematen digu VII. Inkesta Soziolinguistikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoan 4.550 inkesta egin dira. Horietatik, 2.650 euskaldunei eta 1.900 ez euskaldunei. EAEko lagin osoaren laginketa-errorea + % 1,76koa da (+ % 2,09koa euskaldunen kasuan eta + % 2,49 ez euskaldunenean) % 95,5eko konfiantza mailarako eta  $p=q=\% 50$ .

## **3.- EAS (Euskararen Adierazle Sistema).**

Euskaren eremu osoan hizkuntza-egoera sozialaren berri emango duen adierazle-sorta da Euskararen Adierazle Sistema (EAS). Era planifikatuan eta sistematikoan diseinatua eta modu iraunkorrean eta antolatuan datuz elikatuta eta eguneratuta dago. Euskararen egoera eta bilakaera jasotzeko eta ezagutzera emateko helburua du EASek; gizartearen esparru desberdinetan euskarak une jakin batean duen zabalkundea eta denboran zehar izaten ari den bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko balio behar du. Gaur egun 60 adierazle aurki daitezke webgunean: [www.euskadi.eus/eas](http://www.euskadi.eus/eas)

# 1.BIZTANLERIA

## 1.1 Bilboko biztanleriaren bilakaera eta egitura.

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, Bilbok 342.662 biztanle ditu. Duela 40 urteko populazioarekin konparatuz gero, Bilbok biztanleria galdu du, zehazki % 13a lau hamarkadatan (51.159 pertsona).

Bilbo Handiak eta Bizkaiak ere emaitza demografiko negatiboa dute, baina neurri txikiagoan galdu dute biztanleria azken lau hamarkadetan: % 8,5 (79.672 pertsona) eta % 3,8 (45.155 pertsona) hurrenez hurren.

Aldiz, EAEen biztanleriak gora egin du azken hamarkadan eta duela 40 urteko populazioarekin konparatuz, biztanleriaren saldoa positiboa da: % 2,3 hazi da 1981etik 2021era (51.390 biztanle gehiago).

<b>Biztanleriaren bilakaera. 1981-2021</b>					
	<b>1981</b>	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2011</b>	<b>2021</b>
<b>Bilbo</b>	393.821	369.839	347.452	351.965	342.662
<b>Bilbo Handia</b>	936.848	905.468	864.244	873.742	857.176
<b>Bizkaia</b>	1.189.278	1.155.106	1.122.180	1.152.406	1.144.123
<b>EAE</b>	2.141.809	2.104.041	2.082.587	2.179.815	2.193.199

*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak*

Biztanleria galtzeaz gain, zahartze prozesuak jarraipena izan du azken hamarkadetan Bilbon. 1981-2021 epean, 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak 13,6 puntuko igoera izan du Bizkaiko hiriburuan. Hain zuzen ere, bilbotarren % 10,8 ziren (42.533 pertsona) 65 urte edo gehiagokoak 1981ean; 2021ean, aldiz, % 24,4 dira (83.610 pertsona).

Era berean, hogeitiki urtetik beherakoen kopurua erdira baino gehiago jaitسي da. Duela lau hamarkada, 1981ean, hogeitiki urte baino gutxiagokoak biztanleriaren % 31,9 ziren (125.629 pertsona) 1981ean ; 2021ean, aldiz, % 16,0 dira (54.826 pertsona).

**Biztanleriaren bilakaera adin-talde nagusien arabera. Bilbo, 1981-2021 (%)**

<b>Adina</b>	<b>1981</b>	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2011</b>	<b>2021</b>
<b>0-19</b>	31,9	22,8	16,2	15,9	16,0
<b>20-64</b>	57,3	62,8	63,0	61,9	59,6
<b>≥ 65</b>	10,8	14,4	20,9	22,2	24,4
<b>Guztira</b>	<b>393.821</b>	<b>369.839</b>	<b>347.452</b>	<b>351.965</b>	<b>342.662</b>

*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak*

Sexuaren araberako banaketari erreparatuz gero, badago alderik: Bilboko biztanleria osoaren % 52,9 emakumezkoak dira (181.309 pertsona) eta % 47,1 gizonezkoak (161.353). Alderik nabarmenena 65 urtetik gorakoen multzoan dago: 65 urte edo gehiagoko populazioaren artean emakumeak % 60,2 dira.


**Biztanleria sexuaren eta adin-talde nagusien arabera. Bilbo, 2021 (%)**

<b>Adina</b>	<b>Emakumezkoa</b>	<b>Gizonezkoa</b>
<b>0-19</b>	48,5	51,5
<b>20-64</b>	51,1	48,9
<b>≥ 65</b>	60,2	39,8
<b>Guztira</b>	<b>52,9</b>	<b>47,1</b>
<b>Guztira</b>	<b>181.309</b>	<b>161.353</b>

*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistika*



Gaur egungo Bilboko biztanleriaren piramideari erreparaturuz gero, argi ikusten da emakumeek batez ere gero eta pisu handiagoa dutela 65 urtetik gorakoen multzoan.



Populazioaren piramidearen egitura eta bilakaera antzekoa da Bilbon, Bizkaian zein Euskal Autonomia Erkidegoan. Azken hamarkadetan estutuz joan da piramidearen oinarria, 20 urtetik beherakoen multzoa pisua galduz joan den heinean, eta 65 urte edo gehiagokoena, aldiz, zabalduz joan da.

Bilbon hogeit hamar urtetik beherakoen ehunekoa erdira jaitsi da azken 40 urteetan, batik bat jaiotza tasa gero eta txikiagoaren eraginez (Bizkaian mila biztanleko 6,1ekoa zen jaiotza tasa 2021ean). Duela lau hamarkada bilbotarren %31,9 (125.649 pertsona) ziren hogeit hamar urtez azpikoak, eta egun, % 15,0 (51.653 pertsona) dira.

Bestalde, bizi-itxaropenaren hazkundearen eraginez, 65 urtetik gorakoen ehunekoa bikoiztu egin da azken lau hamarkadetan: 1981ean Bilboko biztanleriaren % 10,8 ziren 65 urte edo gehiagokoak (42.506 pertsona), eta 2021ean, aldiz, % 25,8 (88.387).


**Biztanleriaren piramidearen bilakaera, adin-talde nagusien arabera. Bilbo, 1981-2021 (%)**

Adina	Sexua	1981	1991	2001	2011	2021
0-19	Emakumezkoa	30,2	21,4	15,5	14,7	13,9
	Gizonezkoa	33,8	24,3	18,2	17,4	16,4
20-64	Emakumezkoa	56,7	61,5	61,7	59,6	56,9
	Gizonezkoa	57,9	64,2	65,1	64,0	61,6
≥ 65	Emakumezkoa	13,1	17,1	22,8	25,8	29,2
	Gizonezkoa	8,3	11,5	16,7	18,6	22,0
Guztira	Emakumezkoa	203.807	192.912	184.310	184.955	181.309
	Gizonezkoa	190.014	176.927	165.662	165.603	161.353

*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak*

## 1.2. Bilboko atzerriko immigrazioa

Bilboko atzerriko immigrazioaren fenomenoaz aztertzeko, azken hogeitun urteak aztertuko ditugu. Izan ere, atzerritarren kopurua, batez ere, azken bi hamarkadetan hazi da. Epe horretan, atzerrian jaiotakoen ehunekoa ia boskoiztu egin da Bilbon: 2001ean Bizkaiko hiriburuko biztanleen % 2,8 zen atzerrian jaiotakoa ( 9.719), eta, 2021ean, % 13,7 (47.058).



Bilbon bezala, bai Bilbo Handian, bai Bizkaian, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, jatorri atzerritarren ehunekoa gero eta handiagoa da biztanlerian. Duela hogeitun urte biztanleriaren % 2k inguruk zuen jatorri atzerritarra aipatutako zonaldeetan, eta egun % 10etik gora du.

**Jatorri atzerritarra duen biztanleriaren bilakaera (%). 2001-2021**

	2001	2006	2011	2016	2021
<b>Bilbo</b>	2,80	6,63	10,10	10,45	13,73
<b>Bilbo Handia</b>	2,20	4,96	7,88	8,22	10,98
<b>Bizkaia</b>	2,13	4,86	7,77	8,11	10,69
<b>EAE</b>	2,24	5,06	8,10	8,76	11,25

*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak*

Adinaren arabera banaketa egiterakoan, atzerriko biztanleriaren ezaugarri nagusienetakoa islatzen da piramidean: biztanleria gaztea da; hiru lagunetik bi 45 urte baino gazteagoa da.


Adin-talde jakin batzuetan, bereziki 20 eta 44 urte bitartekoetan, atzerriko populazioak pisu handiagoa du (atzeritarren erdiak baino gehiago dira adin tarte horretakoak, % 58). 65 urtetik gorako adin-taldeetan, berriz, atzerriko biztanleek ehuneko txikiagoa osatzen dute (% 5 dira).

<b>Biztanleria sexuaren eta adin-talde nagusien arabera. Bilbo, 2021 (%)</b>		
<b>Adina</b>	<b>Emakumezkoa</b>	<b>Gizonezkoa</b>
<b>0-19</b>	2.046	2.410
<b>20-44</b>	14.176	13.841
<b>45-64</b>	7.578	5.779
<b>≥ 65</b>	1.577	899
<b>Guztira</b>	<b>25.377</b>	<b>22.929</b>


*Iturria: Ikuspegi*

Sexuari dagokionez, atzerrian jaiotakoen artean gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino: % 52,5 dira emakumezkoak (25.377) eta % 47,5 gizonezkoak (22.929).


Atzerrian jaiotako emakumeen erdiak 45 urtetik beherakoak dira (% 51); aldiz, gizonezkoen kasuan, hamarretik zazpi dira 45 urte baino gazteagoak. Adin horretatik aurrera emakumeen kopurua gizonezkoena baino handiagoa da adin-talde guztietan.



Jatorriari dagokionez, Bilboko atzerriko biztanleen ia bi herena, % 60,2, Amerikan jaiotakoak dira; Afrikan, % 18,8; Europan, % 13,4; eta Asian, gainerako % 7,5. Ozeanian jaiotakoak ez dira iristen % 0,1era.




Atzerrian jaiotakoen jatorriari dagokionez, badaude aldeak Bilbon, Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Amerikan jaiotakoen ehunekoa handiagoa da Bilbon (% 60,2) eta txikiago Bizkaian eta EAEn ( % 56,1 eta % 52,5 hurrenez hurren). Aldiz, Afrikan jaiotakoen ehunekoa txikiagoa da Bilbon (% 18,8) eta handiagoa Bizkaian eta EAEn (% 19,4 eta % 21,3 hurrenez hurren). European jaio diren atzerritarren ehunekoetan ere badaude gorabeherak: Bilbon % 13,4 dira, Bizkaian % 17,9, eta EAEn, % 19,5.



### 1.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak


2021/2022 ikasturtean Bilbon 51.991 ikasle egon dira matrikulatuta araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioan, eta horietatik erdiak, %50,8 (26.425 ikasle), D eredu<sup>2</sup> matrikulatu ziren.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik kontutan hartuta, ikasleen ia bi herenak (% 63) D eredu<sup>2</sup>an matrikulatu ziren 2021/2022 kurtsioan, 23.254 ikasle guztira.



<sup>2</sup> Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailaren 138/1983 Dekretuak hizkuntza ofizialen erabilera araupetzen du unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, eta ondoren deskribatzen ditugun irakaskuntza elebiduneko hizkuntza-ereduak ezartzen ditu: *D eredu<sup>2</sup>a: irakas-hizkuntza euskara da, Gaztelaniar Hizkuntza eta Literaturan izan ezik.*

Hizkuntza-ereduak martxan jarri zirenetik asko aldatu da egoera Bilbon. 1986/1987 ikasturtean ia hamarretik bederatzik ikasle (% 88,6) A eredu<sup>3</sup> matrikulatuta zeuden araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioan, % 3,9 B eredu<sup>4</sup>, % 5,4 D eredu<sup>5</sup> eta % 2,1 X eredu<sup>5</sup>. Ia lau hamarkada geroago, bost ikasle bat matrikulatu da A eredu<sup>5</sup> (% 20,4), gehienak Lanbide Heziketako ikasketetan; izan ere, oraindik D ereduak pisu txikia dauka Lanbide Heziketan: 2021/22 ikasturtean % 6,7 matrikulatu ziren D eredu<sup>5</sup> Lanbide Heziketako ikasketaren batean.




<sup>3</sup> Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailaren 138/1983 Dekretuak hizkuntza ofizialen erabilera araupetzen du unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, eta ondoren deskribatzen ditugun irakaskuntza elebiduneko hizkuntza-ereduak ezartzen ditu: *A eredu*: irakas-hizkuntza gaztelania da, *Euskal Hizkuntza eta Literaturan izan ezik*.

<sup>4</sup> Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailaren 138/1983 Dekretuak hizkuntza ofizialen erabilera araupetzen du unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, eta ondoren deskribatzen ditugun irakaskuntza elebiduneko hizkuntza-ereduak ezartzen ditu: *B eredu*: irakasgai batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk euskaraz irakasten dira.

<sup>5</sup> X eredu ez da hizkuntza-eredu ofiziala. Horren barruan sartzen dira atzerriko mendekotasuna duten ikastetxeetan dauden ikasleak, euskara ikasgaia ikasten ez dutenak.




Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik kontutan hartuta, D ereduari matrikulatutako ikasleen ehunekoa ikasturtez ikasturte hazi da. 1991/1992 ikasturtean ikasle bilbotarren % 12,7 matrikulatu ziren D ereduari; 2021/2022 ikasturtean, aldiz, lehen aipatu bezala, % 63. Kontrara, A ereduari indarra galduz joan da eta 2021/2022 ikasturtean % 2,6 matrikulatu ziren irakas-hezkuntza gaztelania duen ereduari. B ereduko matrikulazioen ehunekoa haziz joan da 2011/2012 ikasturtera arte, baina geroztik jaitsi egin da ehunekoa.



D ereduaren hazkundera ikasketa maila guztietan ematen ari da azken hamarkadetan, nahiz eta modu berean ez izan: Haur Hezkuntzan, azken hogeitun urteetan (2001/2002 ikasturteetik 2021/2022 ikasturtera bitartean) D ereduari matrikulatu direnen ehunekoak 28,2 puntuko igoera izan du ( % 42,8 versus % 71); Lehen Hezkuntzan, igoera 32,6 puntuko izan da ( % 30,9 versus % 63,5); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, 35,6koa (% 19,3 versus % 54,9); eta Batxilergoan, 30,9 puntuko ( % 18,4 versus % 49,3). Igoera txikiena, Lanbide Heziketan matrikulatu direnen ehunekoan antzeman daiteke: 2001/2002 ikasturtean % 0,3 matrikulatu ziren D ereduari eta 2021/2022 ikasturtean, % 6,7.

D ereduaren bilakaera. Bilbo, 2001/02 -2021/22




Iturria: EUSTAT

#### 1.4. Helduen euskalduntzea

2023-24 ikasturtean Bilbon 3.337 ikasle matrikulatu dira euskarazko mailaren batean. Ikasleen hiru laurdena baino gehiago ( % 75,6) B2 eta C1 mailetan matrikulatu dira, 1.106 eta 1.419 ikasle hurrenez hurren. B1 mailan 636 ikasle matrikulatu dira, ia bost ikasletik bat, ( % 19,1). C2 mailan 88 lagunek eman dute izena, eta Z mailan, beste horrenbestek, 88k.

Z-mailako ikastaroak Helduak Euskalduntzeko Oinarrizko Curriculum-eko esparrutik kanpora daudenak dira. Esate baterako, Euskaltzaindiaren azken arauak ezagutzeko ikastaroak, hitanoaren gainekoak, eta abar. Maila hau lehenago Goi-maila deitzen zen haren parekoa da.



Ikasle kopuruaren bilakaerari dagokionez, azken hamarkadetako datuei erreparaturaz, ikasle kopuruaren beherakada ikusten da. Duela hamalau urte, 2009/2010 ikasturtean, ikasle kopurua bikoitza zen, 2023/2024 ikasturteko datuarekin alderatuz gero ( 6.696 ikasle versus 3.337 ikasle).

Jaitsiera orokor horretan, batez ere, B1 mailako ikasle kopurua izan da urtez urte gehien gutxitu dena. B2 eta C1 mailek ere ikasleak galdu dituzte azken bi hamarkadetan, baina proportzioan gutxiago.

Azken bi hamarkadetako joera orokorrari jarraituz, ikasle kopururik handiena C1 mailan matrikulatzen da, gero eta alde handiagoaz. Aldiz, ikasle gutxien C2 eta Z mailatan matrikulatzen dira, nahiz eta azken bi hamarkadetako bilakaerari dagokionez, gorabehera handiagoa izan duten C2 eta Z mailek. Kontutan hartu behar da ikastaroak ere aldatu egin direla: 2005/2006 ikasturtera arte ez zegoen C2ko ikastarorik, eta ezta Z-mailakorik ere 2007/2008 ikasturtera arte.

Helduen euskalduntzearen bilakaera (ikasleak). Bilbo, 2004/05-2023/24

	<b>Guztira</b>	<b>B1</b>	<b>B2</b>	<b>C1</b>	<b>C2</b>	<b>Z-maila</b>
2023/2024	3.337	636	1.106	1.419	88	88
2022/2023	4.261	896	1.509	1.573	117	166
2021/2022	4.676	976	1.735	1.662	135	168
2020/2021	4.481	1.015	1.668	1.624	116	58
2019/2020	4.860	1.096	1.777	1.834	90	63
2018/2019	4.987	1.206	1.818	1.796	72	95
2017/2018	4.928	1.129	1.794	1.843	68	94
2016/2017	4.730	1.093	1.570	1.923	85	59
2015/2016	4.532	1.043	1.621	1.730	74	64
2014/2015	4.980	1.050	1.575	2.161	98	96
2013/2014	5.003	1.096	1.521	2.191	74	121
2012/2013	5.124	1.104	1.563	2.296	73	88
2011/2012	5.740	1.241	1.731	2.602	87	79
2010/2011	6.371	1.433	1.984	2.830	60	64
2009/2010	6.696	1.665	2.096	2.800	62	73
2008/2009	6.467	1.634	1.980	2.741	51	61
2007/2008	6.096	1.726	1.906	2.351	29	84
2006/2007	6.177	1.774	1.952	2.439	12	0
2005/2006	6.511	1.929	2.056	2.506	20	0
2004/2005	2.491	791	793	907	0	0

Iturria: HABE

Oharra: kopuruak ikasleak dira, ez matrikulak. Pertsona batek ikasturte batean maila berdinean bi matrikula egin baditu, behin kontatu da; baina pertsona bat bi maila desberdinetan matrikulatu baldin bada ikasturte berean, bi mailatan kontatu dira.

## 2. HIZKUNTZA-GAITASUNA

## 2.1. Hizkuntza-gaitasuna: Bilbo, Bizkaia eta EAE

Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:


1. **Euskalduna (elebiduna):** gai da euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko.
2. **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** ez da gai euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
  - a. Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
  - b. Euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko gai da.
3. **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko, ezta hitz egiteko ere.

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 330.956 pertsona bizi dira Bilbon. Horietatik, 98.805 pertsona (% 29,9) euskaldunak dira. Beste 52.672 pertsona (% 15,9) euskaldun hartzaileak dira, eta, azkenik, 179.479 (% 54,2) erdaldunak dira.

Bizkaian berriz, bost urte edo gehiagoko 1.103.170 pertsona bizi dira, eta horietatik, 409.669 herritar (% 37,1) euskaldunak dira. Beste 409.669 pertsona (% 15,9) euskaldun hartzaileak dira, eta milioi erdi pasatxo, 517.623 (% 46,9), erdaldunak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2.110.702 biztanletik 897.878 herritar dira euskaldunak, hamar lagunetik lau (% 42,5). 322.546 pertsona (% 15,3) euskaldun hartzaileak dira, eta 890.278 (% 42,2), erdaldunak.


Hizkuntza-gaitasuna. Bilbo, Bizkaia, EAE 2021 (%).



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021

## 2.2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera.

Atzera begiratzuz gero, hau da, 1991ko datuei erreparatzuz gero, esan daiteke Bilbon euskaldunen ehunekoa hirukoiztu egin dela (% 9,7 versus % 29,9). Aldiz, erdaldunen ehunekoa 17 puntu baino gehiago jaitsi da (% 71,8 versus %54,2). Euskaldun hartzaileen ehunekoak gorabehera txikiagoa izan du azken 30 urteetako bilakaeran: 1991n % 18,5 ziren, eta, gaur egun, %15,9. Eskola ezinbestekoa izan da euskalduntze prozesuan. Hazken hamarkadetan, D ereduko hezkuntzari esker, batik bat belaunaldi berrien euskara-gaitasunak gora egin du.




Bizkaiak eta Euskal Autonomia Erkidegoak antzeko bilakaera izan dute. Ehunekoak aztertuta, gaur egun Bizkaian duela 30 urte bizi zen euskaldun kopuruaren ia bikoitza bizi da (% 19,0 versus 37,1): datu absolutuetara joz gero, 1991n bost urte edo gehiagoko 210.808 bizkaitar euskaldun zeuden, eta 2021ean, berriz, ia bikoitza, 409.669 euskaldun. Euskaldun hartzaileen ehunekoa antzeko xamar mantendu da, eta erdaldunena 17,6 puntu jaitsi da (% 71,8 versus % 54,2). EAEn euskaldunen ehunekoa 16,1 puntu igo da (% 26,4 versus % 42,5); euskaldun hartzaileena 1,1 jaitsi (% 16,2 versus % 15,1); eta erdaldunena, 15,2 jaitsi (% 57,4 versus % 42,2).



## Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Bilbo, Bizakai, EAE 1991-2021 (%)


### BILBO



### BIZKAIA



### EAE




Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzien Zentsuak

### 2.3. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Azken hamarkadetako gazteen euskalduntze prozesua agerikoa da, nagusiki euskarazko hezkuntzari eta euskaltegiei esker, eta agerikoa da ere erdaldunen ehunekoen jaitsiera orokorra.

Gaur egun bost eta hogeita hamar urte bitarteko bilbotarren % 70,1 euskalduna da. Eta hogeit urtetik beherakoen artean, batzaz beste hamarretik zortzi dira gai euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko. Aldiz, adinean gora egin ahala, euskaldunen ehunekoa jaitsiz doa: 65 urtetik gorakoen artean bilbotarren % 7 da euskalduna.



Euskaldun hartzaileei dagokionez, 35-49 urte bitartekoen artean lautik bat (% 25,4) da gai euskaraz ondo ulertzeko (nahiz eta ondo ez hitz egin), edo bestela, ondo ulertzeko gai ez bada, gai da hitz egiteko (zailtasunez bada ere). Nagusien artean txikiagoa da euskaldun hartzaileen kopurua: 65 urtetik gorakoen artean, % 7,2.


Erdaldunak, azkenik, nagusi dira 30 urtetik gorako adin-tarte guztietan. Batez ere adinez nagusienak diren multzoetan dute pisua: 50 urtetik gorako bilbotarren % 76,8 da erdalduna.

<b>Hizkuntza-gaitasuna adin multzoen arabera. Bilbo, 2021 (%)</b>				
	<b>Bilbo</b>			
	<b>Guztira</b>	<b>Euskaldunak</b>	<b>Euskaldun hartzailleak</b>	<b>Erdaldunak</b>
<b>5-19</b>	43.085	81,8	15,2	3,0
<b>20-34</b>	51.902	50,3	15,2	34,5
<b>35-49</b>	72.573	26,7	25,4	47,9
<b>50-64</b>	79.690	15,4	17,3	67,3
<b>65-79</b>	53.798	7,8	8,7	83,5
<b>&gt;=85</b>	29.908	5,5	4,4	90,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>330.956</b>	<b>29,9</b>	<b>15,9</b>	<b>54,2</b>

*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021*


## 2.4. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera

Arestian aipatu bezala, gazteenek euskalduntze prozesu oso indartsua bizi izan dute azken hamarkadetan, D ereduko hezkuntzak hauspotuta, eta baita hein batean euskaltegiek ere. Belaunaldi berrietako asko eskolan euskaldundu dira eta gaur egun gehienak gai dira euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko. Duela hogeita hamar urte 5 eta 19 urte bitarteko bilbotar euskaldunen ehunekoa ez zen % 20ra iristen. Gaur egun hamarretik zortzi baino gehiago ( % 81,2) dira euskaldunak adin tarte horretan. Halere, euskaldunen ehunekoa ez da bakarrik handiagoa gazteenen artean: 20 eta 65 urte bitartekoen artean ere euskaldunen ehunekoa igo egin da azken hiru hamarkadetan, nahiz eta neurri eta kopuru ezberdinetan egin. Aldiz, 65 urtetik gorakoen artean gaur egun euskaldunen ehunekoa txikiagoa da 1991an zena baino ( % 9,5 versus % 7).



Euskaldun hartzaleei dagokionez, duela 30 urte hogei urtetik beherakoen multzoak zeukan ehunekorik handiena Bilbon, % 40tik gora. 2021ean, aldiz, euskaldun hartzaleen ehunekorik handiena 40-49 bitarteko adin multzoan dago, eta ez da % 30era iristen ( % 27 batz bestea gutxi gorabehera).

Azkenik, erdaldunen ehunekoak behera egin du ia adin tarte guztietan azken 30 urteotan, 70 urtetik gorakoen artean izan ezik. Aipatzekoa da 2021ean 5-14 urte bitartekoan artean erdaldunen ehunekoa ez dela iristen % 2ra.



Dena den, bilakaera ez da guztiz homogenoa izan hogeita hamar urte hauetan. Joera orokorra mantendu egin da; hau da, ia adin tarte guztiak joan dira irabazten euskaldunen ehunekoak ( 65 urtetik gorako multzoak salbu), eta ia adin tarte guztietan egin du behera, hamarkadaz hamarkada, erdaldunen ehunekoak ( 80 urtetik gorakoen artean izan ezik).

<b>Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adin multzoen arabera. Bilbo, 1991-2021 (%)</b>												
<b>Adina</b>	<b>Euskaldunak</b>				<b>Euskaldun hartzaileak</b>				<b>Erdaldunak</b>			
	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2011</b>	<b>2021</b>	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2011</b>	<b>2021</b>	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2011</b>	<b>2021</b>
<b>5-19</b>	16,9	42,6	68,1	81,8	44,3	36,8	21,6	15,2	38,8	20,6	10,3	3,0
<b>20-34</b>	10,2	19,5	31,5	50,3	21,9	37,7	30,8	15,2	67,9	42,8	37,7	34,5
<b>35-49</b>	5,7	10,6	17,2	26,7	10,5	18,0	28,8	25,4	83,7	71,5	53,9	47,9
<b>50-64</b>	5,8	5,6	9,3	15,4	5,8	9,8	18,2	17,3	88,5	84,6	72,5	67,3
<b>65-79</b>	8,8	6,6	5,5	7,8	5,6	6,5	10,8	8,7	85,6	86,9	83,8	83,5
<b>&gt;=80</b>	11,6	10,4	7,4	5,5	5,4	5,8	7,4	4,4	83,0	83,9	85,2	90,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,7</b>	<b>15,3</b>	<b>22,1</b>	<b>29,9</b>	<b>18,5</b>	<b>21,3</b>	<b>21,8</b>	<b>15,9</b>	<b>71,8</b>	<b>63,4</b>	<b>56,1</b>	<b>54,2</b>

*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak*

## 2.5 Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera

Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera kontuan hartuz, emakumezkoen % 29,5 dira Bilbon euskaldunak eta gizonezkoen artean, berriz, % 30,3. Ikusten denez, euskaldunen ehunekoa handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, 0,8 puntu hain zuzen ere.

Euskaldun hartzaileen artean, berriz, aldea handiagoa da: emakumezkoen % 15,4 dira eta gizonezkoen % 16,5.

Azkenik, erdaldunei dagokienez, aldea ia bi puntukoa da, baina kasu honetan emakumeen ehunekoa da handiagoa: % 55,1 emakumezkoak eta % 53,2 gizonezkoak.

<b>Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera. Bilbo, 2021 (%)</b>			
	<b>Guztira</b>	<b>Emakumezkoak</b>	<b>Gizonezkoak</b>
<b>Euskaldunak</b>	29,9	29,5	30,3
<b>Euskaldun hartzaileak</b>	15,9	15,4	16,5
<b>Erdaldunak</b>	54,2	55,1	53,2

*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021*

## 2.6. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera sexuaren arabera

Bilboko azken hiru hamarkadetako bilakaerari erreparatuz gero, ez da alde handirik antzematen. Egia da azken hamarkadetan emakumezkoen artean euskaldunen ehunekoa handiagoa izan dela gizonezkoetan baino, eta 2021ean, aldiz, gizonezkoena 0,8 puntu handiagoa dela (% 30,3 versus % 29,5); dena dela, aldeak txikiak dira..

**Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera sexuaren arabera. Bilbo, 2021 (%)**

		Emakumezkoa	Gizonezkoa
2021	Euskaldunak	29,5	30,3
	Euskaldun hartzailleak	15,4	16,5
	Erdaldunak	55,1	53,2
2011	Euskaldunak	22,3	21,9
	Euskaldun hartzailleak	21,1	22,5
	Erdaldunak	56,6	55,5
2001	Euskaldunak	15,6	15,0
	Euskaldun hartzailleak	20,9	21,7
	Erdaldunak	63,5	63,4
1991	Euskaldunak	10,1	9,2
	Euskaldun hartzailleak	18,3	18,8
	Erdaldunak	71,6	72,0

*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak*



### 3. GAITASUN ERLATIBOA: ERRAZTASUNA

### 3.1. Gaitasun erlatiboa: Bilbo, Bizkaia eta EAE


Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz gehienetan) hitz egiteko erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.


Honako hauek dira euskaldunak gaitasun erlatiboaren arabera:

- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

Bilbon 16 urte edo gehiagoko euskaldunen % 8k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz egiteko baino, hau da, euskal elebidunak dira. Bi hizkuntzetan (euskara eta erdara) erraztasun bera du lautik batek (%25,5), eta hirutik bi erdal elebidunak dira.




Bizkaiko datuei erreparatuz gero, euskal elebidunen ehunekoa bikoitza baino handiagoa da: Bilbon % 8 mintzatzzen da euskaraz errazago eta % 19,8 Bizkaiko lurraldean. EAEn, berriz, ehuneko hori % 27,4koa da. Elebidun orekatuen ehunekoa paretsua da bai Bilbon (% 25,5), bai Bizkaian (% 26,7), bai EAEn (% 28,3). Erdaraz errazago moldatzen direnen ehunekoen artean badago alde esanguratsurik: Bilborekin konparatuz erdal elebidunen ehunekoa 13 puntu txikiagoa da Bizkaian (% 66,6 versus % 53,5). EAEn, biztanleen % 44,3 moldatzen da errazago erdaraz.



### 3.2 Gaitasun erlatiboaren bilakaera: Bilbo, Bizkaia eta EAE

Azken hiru hamarkadetan euskal elebidunen ehunekoa jaitsi egin da Bilbon. Horrek ez du esan nahi kopurua murriztu egin denik. Kontuan hartu behar da denbora tarte horretan Bilboko euskaldunen kopurua ia hirukoiztu egin dela ( 34.429 euskaldun 1991n versus 98.805 2021ean); azken hamarkadetan euskaldun kopuruaren hazkundera handia izan da Bilbon, batik bat eskolaren bitartez euskaldundu direlako belaunaldi berriak. Halere, kontutan hartu behar da, euskaldun berri horietako askoren lehen hizkuntza erdara dela edo erdara ere badela: 1991n Bilboko euskaldunen % 35,8 euskaldun zaharra zen, eta 2021ean, berriz, euskaldunen % 11,7. Gaur egun Bilbon lau euskaldunetik hiru ( % 76) euskaldun berriak dira. Horrek eragin zuzena dauka gaitasun erlatiboan, lehen hizkuntza lotuta dagoelako hizkuntza hori mintzatzeko erraztasunarekin.

Horregatik, azken 30 urteetako bilakaerari erreparaturaz gero, ikusiko dugu euskal elebidunen ehunekoa 3 puntu jaitsi dela Bilbon ( % 11,2 versus % 8). Elebidun orekatuen kasuan, berriz, ehunekoa 3 puntu hazi da ( % 22,5 versus % 25,5), eta erdal elebidunen ehunekoa paretsua da ( % 66,3 versus % 66,5).



Bilboren kasuan bezala, Bizkaiko lurraldean ere euskaldun elebidunen ehunekoa jaitsi egin da azken 30 urteotan. 1991n bizkaitar euskaldunen ia heren bat ( % 32,3) mintzatzen zen errazago euskaraz erdaraz baino, eta gaur egun, ehuneko hori % 19,8koa da. Dena dela, lehen aipatu bezala, kontutan hartu behar da Bizkaiko lurraldean euskaldunen kopurua ia bikoiztu egin dela azken hiru hamarkadetan ( 210.808 euskaldun versus 409.669), eta euskaldun horien gaitasun erlatiboa aldatu egin dela: 1991n Bizkaian hiru euskaldunetik bi zen euskaldun zaharra ( % 65,7) eta 2021ean, % 27. Horrek eragin zuzena dauka euskaraz mintzatzeko erraztasunean. Elebidun orekatuen kasuan, ehunekoa ia 4 puntu igo da Bizkaian ( % 23 versus % 26,7) eta erdal elebidunen kasuan ia 9 puntu ( % 44,6 versus % 53,5).

Euskal Autonomia Erkidegoan joera bera da: euskal elebidunen ehunekoa 8 puntu jaitsi den bitartean ( % 35,5 versus % 27,4), elebidun orekatuena ia 3 puntu igo da ( % 25,4 versus % 28,3) eta erdal elebidunena 5 puntu ( % 39,1 versus % 44,3).

Euskaldunak erraztasunaren arabera, bilakaera. Bilbo, Bizkaia eta EAE, 1991-2021 (%)


	Bilbo		Bizkaia		EAE	
	1991	2021	1991	2021	1991	2021
<b>Euskaldun elebidunak</b>	11,2	8,0	32,3	19,8	35,5	27,4
<b>Elebidun orekatuak</b>	22,5	25,5	23,0	26,7	25,4	28,3
<b>Erdal elebidunak</b>	66,3	66,5	44,6	53,5	39,1	44,3

*Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*

### 3.3. Gaitasun erlatiboa adinaren arabera: Bilbo

Bilbon euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek dute (% 12,7k), eta txikiena 24 urtetik beherakoek (% 5,2k). Kontuan hartu behar da, Bilboren kasuan adinean behera egin ahala gero eta euskaldun kopuru handiagoa aurkituko dugula adin multzoetan. Euskaldun horietako asko eskolari esker (eta D ereduko matrikulazio kopuruek izandako hazkundeari esker) euskaldundu dira, eta eurretako askoren lehen hizkuntza erdara da edo erdara ere bada. Horrek eragina dauka gaitasun erlatiboan. Jende nagusienaren artean, aldiz, euskaldunen artean gehiago dira proportzioan euskaldun zaharrak. Horregatik, euskal elebidunen ehunekoarekin gertatu bezala, elebidun orekatuen ehunekorik handiena ere 65 urtetik gorakoek dute.

Erdal elebidunak dira euskaldunen multzorik handienak ia adin-talde guztietan, 65 urtetik gorakoen artean izan ezik. Erdal elebidunen ehunekorik handiena 16-24 urte bitartekoek dute: % 76,7.



### 3.4. Gaitasun erlatiboa sexuaren arabera: Bilbo

Bilboko euskaldunen gaitasun erlatiboa sexuaren arabera aztertzerakoan, alde esanguratsuak daudela antzematen da. Emakumezkoen artean euskal elebidunak % 9,2 diren bitartean, gizonezkoen artean ehunekoa 2,7 puntu txikiagoa da ( % 9,2 versus % 6,5). Aldiz, euskaraz eta erdaraz paretsu moldatzen direnen artean, gizonezkoen ehunekoa 1,7 puntu handiagoa da (% 26,4 versus % 24,7 hurrenez hurren).

#### Zein hizkuntzatan hitz egiten du errazago. Bilbo, 2021 (%)

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
<b>Euskaraz</b>	8,0	9,2	6,5
<b>Euskaraz eta erdaraz</b>	25,5	24,7	26,4
<b>Erdaraz</b>	66,5	66,1	67,1

*Iturria: VII Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*


## 4. LEHEN HIZKUNTZA



#### 4.1. Lehen hizkuntza: Bilbo, Bizkaia eta EAE


Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

2021ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuko datuen arabera, Bilbon bost urte edo gehiagoko biztanleen % 4,9k euskara soilik jaso du etxean eta beste % 4,6k euskara eta gaztelania batera. Era berean, hamarretik zortzik baino gehiagok (% 84,7k) gaztelania soilik jaso du etxean, eta % 5,9k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat. Azken urteetako immigrazioaren eraginez, gero eta hizkuntza gehiago dira euskaraz eta gaztelaniaz gain entzuten direnak gure kaleetan (arabiera, errumaniera, wolofera, yukatakera, txinera, susuera, tamiler, india...).



Bizkaiko lurraldean % 17,7k dauka gutxienez euskara lehen hizkuntza ( % 11,9k euskara soilik eta % 5,8k euskara eta gaztelania). Aldiz, gaztelania da bizkaitarren % 77,5aren lehen hizkuntza. Azkenik, % 4,8aren lehen hizkuntza da euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat.


Euskal Autonomia Erkidegoan ia lautik baten lehen hizkuntza da gutxienez euskara ( % 17,7rena euskara soilik da eta % 6,5ena euskara gaztelaniarekin batera). Gaztelania, berriz, hamarretik zazpi herritarren lehen hizkuntza da ( % 70,6). Azkenik, Bilbon eta Bizkaian bezala, 100 herritarretik bost inguruk ( % 5,2) euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dute etxean.



#### 4.1.1. Lehen hizkuntzaren bilakaera: Bilbo, Bizkaia eta EAE

1986tik 2021erako tartean, lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoak gorabehera gutxi izan du Bilbon (0,1 puntu igo da, % 4,8tik % 4,9ra). Aldiz, etxean euskara gaztelaniarekin batera jaso dutenen ehunekoaren igoera esanguratsuagoa da: 1986ean % 3,2k zuen lehen hizkuntza euskara eta gaztelania, eta 2021ean, % 4,6k. Etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoa berriz 5,2 puntu jaitsi da azken 35 urteetan ( % 89,9 versus % 84,7).

Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa 3,7 puntu hazi da ( % 2,1 versus % 5,8): lehen aipatu bezala, azken bi hamarkadetako atzeritarren immigrazioa dela-eta, gero eta biztanle gehiagok euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du etxean. Datu hori ia hirukoiztu egin da azken hogeitun urteotan Bilbon ( 6.877 versus 19.108).



Lehen hizkuntzaren bilakaera. Bilbo, 1986-2021

	Guztira	Euskara	Euskara eta Gaztelania	Gaztelania	Beste bat
<b>1986</b>	362.824	17.397	11.519	326.350	7.558
<b>1991</b>	355.564	16.898	9.288	323.523	5.855
<b>2001</b>	334.976	15.303	8.353	304.443	6.877
<b>2011</b>	333.416	16.567	11.615	291.150	14.084
<b>2021</b>	<b>330.956</b>	<b>16.319</b>	<b>15.283</b>	<b>280.246</b>	<b>19.108</b>

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021

Bilboren kasuan ez bezala, Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan jaitsi egin da azken 35 urteetan euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa: Bizkaian 2,2 puntu ( % 14,1 versus % 11,9) eta EAEn ia hiru puntu ( % 20,6 versus % 17,7). Aldiz, Bilbon gertatu den bezala, lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dutenen ehunekoa hazi egin da; Bizkaiko lurraldean bikoiztu egin da ( % 2,9 versus % 5,8) eta EAEn 2,8 puntu igo da ( % 3,7 versus % 6,5). Etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoen beherakada orokorra izan da lurralde guztietan, bai eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoen igoera ere, azken hau immigrazioaren eraginez, batik bat.

Lehen hizkuntzaren bilakaera. Bilbo, Bizkaia eta EAE, 1986-2021 (%)

	Bilbo			Bizkaia			EAE		
	1986	2001	2021	1986	2001	2021	1986	2001	2021
<b>Euskara</b>	4,8	4,6	4,9	14,1	13,3	11,9	20,6	19,8	17,7
<b>Euskara eta Gaztelania</b>	3,2	2,5	4,6	2,9	3,1	5,8	3,7	3,7	6,5
<b>Gaztelania</b>	89,9	90,9	84,7	81,1	81,8	77,5	73,9	74,7	70,6
<b>Beste bat</b>	2,1	2,1	5,8	1,9	1,8	4,8	1,8	1,8	5,2

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.

#### **4.1.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera: Bilbo**


Atal honen hasieran ikusi dugu bost urtetik gorako bilbotarren % 4,9k jaso duela euskara soilik etxean. Adin multzoei erreparaturaz, 25 urtetik beherakoen ehunekoa batz bestekoaren gainetik dago: lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handienak 10-14 eta 15-19 urte bitarteko adin-taldeek dute ( % 9 eta % 8,3 hurrenez hurren). Aipatzekoa da, bestalde, 85 urte edo gehiagoko herritarren artean ere euskara soilik jaso dutenen ehunekoa 6,1 puntukoa dela, batz bestekoaren gainetik. Beraz, ikus daiteke euskararen transmisioan beherakada bat egon ostean, berriz gora egin duela, aipatu bezala gazteenen artean dagoelako etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena.

Lehen hizkuntza euskara gaztelaniarekin batera dutenen artean ere, ehunekorik handiena 20 urtez azpikoek dute, eta bereziki 5-9 urte bitartekoak ( % 17,7). Adinean gora egin ahala, behera egiten du etxean euskara gaztelaniarekin batera jaso dutenen ehunekoak, eta 55 urtetik gorakoen artean % 2 baino txikiagoa da portzentaje hori.

Lehen hizkuntza gaztelania dutenen ehunekoak ere gora egiten du adinean aurrera egin ahala. 45 urtetik gorakoen artean ehuneko hori % 85a baino handiagoa da. Aldiz, 45 urtetik beherakoen artean etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehuneko jaitsi egiten da: batik bat, 20 urtetik beherakoen artean pisu handiagoa daukalako euskarak edo euskarak gaztelaniarekin batera.

Azkenik, 20 eta 45 urte bitartean dauka pisurik handiena lehen hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen multzoak, gutxi gorabehera % 10, batz bestekoaren gainetik. Hain zuzen ere, atzerrian jaiotakoena piramidea aztertuz gero ikusiko dugu atzerritarrek pisu handiagoa dutela 20-45 urte bitarteko multzoan.

## Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bilbo, 2021 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021

### **4.1.3. Lehen hizkuntza adinaren arabera, bilakaera**


Lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, asko aldatu da euskara soilik etxean jaso dutenen multzoa. Duela 35 urte lehen hizkuntza euskara soilik zutenen ehunekorik altuenak adin-talde nagusiek zituzten: 65 urtetik gorakoen ehunekoa 10 puntu baino handiagoa zen batz bestea, eta adinean behera egin ahala txikiagoa zen etxean euskara soilik jasotzen zutenen portzentajea, justu gaur egun gertatzen denaren kontrakoa.

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania zutenei dagokienez, oraingo ume eta gazteek baino ehuneko txikiagoa zuten duela 35 urte, baina jada antzematen zen 5-14 urte bitarteko artean haziz zihola multzo hori (azken 35 urteetan ikusi da gero eta ume gehiagoren lehen hizkuntza dela euskara gaztelaniarekin batera). 1986an etxean euskara gaztelaniarekin batera jaso zutenen ehunekoa 3,6a zen gutxi gorabehera 65 urtetik gorako artean eta adinean behera egin ahala ehunekoa jaitsi egiten zen, lehen aipatu bezala 5-14 urte bitarteko adin multzoan izan ezik.


Duela 35 urte lehen hizkuntza gaztelania zutenen ehunekoa % 89,9koa zen. Batz besteko horren azpitik zeuden 45 urtetik gorako multzoak, hain zuzen ere euskararen pisua handiagoa zelako multzo horietan. Azkenik, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat zutenen ehunekoa oso txikia zen adin-talde guztietan. Halere, 40-54 urte bitarteko artean ehunekoa 3,5etik gorakoa zen.

Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bilbo, 1986- 2021 (%)

2021



1986



Adin-taldek

- Beste bat
- Gaztelania
- Euskara eta gaztelania
- Euskara

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua. 2021



#### **4.1.4. Lehen hizkuntza sexuaren arabera: Bilbo**

Lehen hizkuntza sexuaren arabera kontuan hartuz, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak parekoak dira: emakumeen % 5k dauka euskara soilik lehen hizkuntza, eta gizonezkoen artean, aldiz, % 4,9k.

Etxean euskara gaztelaniarekin batera jaso dutenen kasuan, % 4,4 dira emakumezkoak, eta % 4,9 gizonezkoak.

Gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoak ere paretsuak dira: % 85 versus % 84,4.

Azkenik euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen artean ere ez dago alderik: % 5,7 emakumeak eta % 5,8 gizonezkoak.

#### 4.1.5. Lehen hizkuntza sexuaren arabera, bilakaera

Bilakaerari erreparatuz gero, esanguratsua da 1986ean etxean euskara soilik jaso zutenen artean bazegoela alderik sexuen artean: emakumezkoen % 5,2k zeukan euskara soilik lehen hizkuntza eta gizonezkoen % 4,3k.

Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Bilbo, 1986-2021 (%)

	1986			2021		
	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
<b>Euskara</b>	4,8	5,2	4,3	4,9	5,0	4,9
<b>Biak</b>	3,2	3,3	3,1	4,6	4,4	4,9
<b>Gaztelania</b>	89,9	89,5	90,4	84,7	85,0	84,4
<b>Beste bat</b>	2,1	2,0	2,2	5,8	5,7	5,8


Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2021

## 4.2. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera: Bilbo, Bizkaia eta EAE

Euskaldunen hizkuntza-ibilbidea aztertuko da jarraian. Horretarako, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna aldagaiak gurutzatuko dira. Euskaldunak hiru multzotan banatu dira euren lehen hizkuntzaren arabera:

- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.


2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, Bilbon bost urte edo gehiagoko euskaldunen % 11,7k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira. Hortaz, 11.594 euskaldun zahar daude Bilbon. Bilboko euskaldunen % 11,8k euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebidunak dira. Azkenik, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak % 76,5 dira, hau da, euskaldun berriak dira. Euskaldun berriak etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.



Bizkaiko lurraldean, ia hiru euskaldunetatik bat ( % 27,4) da euskaldun zaharra, eta Euskal Autonomia Erkidegoan % 37.


Jatorrizko elebidunen kasuan, ehunekoak paretsuak dira: Bizkaian % 12,5 eta EAEn % 12,6. Kasu honetan lurraldeko hiriburuan ere euskaldunen ia % 12a da jatorrizko elebiduna.

Azkenik, Bizkaian hamarretik sei dira ( % 60,1) etxean euskararik jaso ez duten euskaldunen kopurua, eta EAEn, erdiak ( % 50,4).



#### 4.2.1. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera, bilakaera: Bilbo, Bizkaia eta EAE

Euskaldunen multzoa aldatu egin da azken 35 urteotan. Bilboren kasuan, 1986an herenak pasatxo euskaldun zaharrak ziren (% 38,4) eta gaur egun ehunekoa txikiagoa da (% 11,7). Aldiz, 1986n euskaldun berrien ehunekoa oraingoarena baino 32,5 puntu txikiagoa zen (% 44,0 versus % 76,5) Bizkaiko hiriburuan. Jatorrizko elebidunen ehunekoa ia 6 puntu jaitsi da azken 35 urteotan: % 17,6 versus % 11,8).



Bizkaiko lurraldean zein Euskal Autonomia Erkidegoan ere aldatu egin da euskaldunen multzoa. Bilboko datuetan ikusi daitekeen bezala, euskaldun berrien ehunekoa haziz joan da euskaldunen artean. Bizkaian azken 35 urteotan hirukoiztu egin da euskaldun berrien ehunekoa, 40,2 puntu ( % 19,9 versus % 60,1), eta EAEn 36 puntu igo da ( % 14,4 versus % 50,4).

Euskaldunak lehen hizkuntzaren bilakaera, bilakaera. Bilbo, Bizkaia eta EAE, 1986-2021 (%)

	Bilbo			Bizkaia			EAE		
	1986	2001	2021	1986	2001	2021	1986	2001	2021
<b>Euskaldun zaharrak</b>	38,4	23,1	11,7	71,6	48,6	27,4	76,8	57,2	37,0
<b>Jatorrizko elebidunak</b>	17,6	11,7	11,8	8,6	9,2	12,5	8,8	8,9	12,6
<b>Euskaldun berriak</b>	44,0	65,1	76,5	19,9	42,1	60,1	14,4	33,8	50,4


*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua.*

#### **4.2.2. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera: Bilbo**

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera aztertzerakoan, azpimarratzekoa da desberdintasunak handiak direla gazteenen eta nagusien artean. Aipatu dugun bezala, belaunaldi berrietako gazte asko etxetik kanpo euskaldundu da, eskolan edo euskaltegian. Hau da, gero eta euskaldun gazte gehiagok ez du euskararik jaso etxean. Kontrara, adinez zenbat eta nagusiagoa izan euskaldun gehiago dira euskara etxean jaso zutenak. Horregatik, gaur egun, adin-tarteetan gora egin ahala, euskaldun zaharren ehunekoa handiagoa da. 65-69 urte bitartekoen artean lau euskaldunetatik bat da euskaldun zaharra, eta 75 urtetik gora ehunekoa 40 puntutik gorakoa da bataz beste. Aldiz, 5-40 urte bitartera, euskaldun zaharren ehunekoa ez da 10 puntuko langara iristen.

Jatorrizko elebidunei dagokionez, ehunekorik handiena 5-9 eta 20-24 urte bitarteko adin-multzoek dute ( % 18,2 eta % 14, hurrenez hurren). Azkenik, euskaldun berrien multzoa nagusi da ia adin-tarte guztietan, 80 urtetik gorakoen artean izan ezik (esan bezala, euskaldun zaharren ehuneko kopururik handiena dute adin nagusienetako multzoek). Gainontzekoetan bataz bestekotik ( %76,5) oso hurbil daude.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Bilbo, 2021 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2021



#### **4.2.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera, bilakaera**


Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, azken hogeita hamabost urteotan, euskaldun zaharren ehunekoa jaitsi egin da adin-tarte guztietan.

Jatorrizko elebidunen ehunekoa ere jaitsi egin da ia adin-tarte guztietan, 20-29 urte bitartekoen artean izan ezik; azken tarte honetan hazi egin da ( 0,6 puntu 20-24 urte bitartekoen artea, eta 1,8 puntu 25-29 urte bitartekoen artean).

Euskaldun berriak, aldiz, gehiago dira gaur egun adin-talde guztietan. Gaur egungo ehunekoekin alderatuta, 1986an euskaldun berri gutxi zeuden 65 urtetik gorakoan artean: % 14 batz bestea gutxi gorabehera.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Bilbo, 1986- 2021 (%)


**1986**



**2021**

**Adin-taldeak**

■ Euskaldun berriak ■ Jatorrizko elebidunak ■ Euskaldun zaharrak



**Adin-taldeak**

■ Euskaldun berriak ■ Jatorrizko elebidunak ■ Euskaldun zaharrak

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2021

#### 4.2.4. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera: Bilbo

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera aztertzerakoan, desberdintasun handirik ez dago. Halere, euskaldun berrien kasuan, emakumezkoen ehunekoa ia puntu bat handiagoa da ( % 76,9 versus %76) eta jatorrizko elebidunen kasuan 1,2 puntukoa ( %11,2 versus %12,4). Euskaldun zaharren ehunekoa ia bera da ( % 11,8 versus % 11,7).

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera. Bilbo, 2021 (%)			
	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaldun zaharrak	11,7	11,8	11,7
Jatorrizko elebidunak	11,8	11,2	12,4
Euskaldun berriak	76,5	76,9	76,0

*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2021*

#### 4.2.5. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera, bilakaera

Sexuaren araberako bilakaera aztertzerakoan, aipatzekoa da joera orokorrari jarraitu diola bilakaerak: hamarkadaz hamarkada, bai emakumezkoen artean, bai gizonezkoen artean, euskaldun zaharren ehunekoa jaitsiz joan da eta euskaldun berrien ehunekoa igoz.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera, bilakaera. Bilbo, 1991-2021 (%)			
		Emakumezkoa	Gizonezkoa
2021	Euskaldun zaharrak	11,8	11,7
	Jatorrizko elebidunak	11,2	12,4
	Euskaldun berriak	76,9	76,0
2011	Euskaldun zaharrak	18,3	17,0
	Jatorrizko elebidunak	11,4	12,5
	Euskaldun berriak	70,3	70,5
2001	Euskaldun zaharrak	24,8	21,3
	Jatorrizko elebidunak	11,5	11,9
	Euskaldun berriak	63,7	66,8
1991	Euskaldun zaharrak	38,1	33,2
	Jatorrizko elebidunak	14,5	14,8
	Euskaldun berriak	47,5	52,1

*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak*

### **4.3. Familia bidezko hizkuntza transmisioa, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera: Bilbo, Bizkaia eta EAE**

Familia bidezko transmisioa aztertzeko, VII. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak erabiliko dira. Gogoratu Inkesta Soziolinguistikoak hamasei urte edo gehiagoko biztanleak hartzen dituela kontuan.


Hizkuntzaren familia bidezko transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, eta emaitzak gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera sailkatu dira.

Familia bidez jasotzen den hizkuntza-transmisioan berebiziko eragina dauka gurasoen euskara-gaitasunak. Bi gurasoak euskaldunak izateak edo bietako bat soilik euskalduna izateak eragin zuzena dauka transmisio hori jasoko duen pertsonaren lehen hizkuntzan.

Bilbon bi gurasoak euskaldunak dituztenen % 61k euskara soilik jaso du etxean; hau da, bi gurasoak euskaldunak direnean hamar gurasotik seik euskara soilik transmititzen die seme-alabei. Euskara eta erdara batera jasotzen dutenen ehunekoa 18,7 puntuko da. Aldiz, erdara soilik jasotzen dutenena, % 20,2. Beraz, bi gurasoak euskaldunak direnean, hamar kasutatik bitan ez da euskararik bat ere transmititzen. Adinean badaude aldeak: 16-34 urte bitartekoen artean ia hirutik batek ( % 32) du lehen hizkuntza euskara eta erdara, eta, aldiz, 49 urte edo gehiagokoen artean % 11k. Bestalde, 16-34 urte bitartekoen artean % 9k jaso du erdara soilik etxean, eta 49 urte edo gehiagokoen artean, % 29k. Beraz, esan daiteke euskara gehiago transmititzen dela duela 50 bat urte baino.

Beste kasuan, bi gurasoetatik bat soilik denean euskalduna, euskararik jaso ez dutenen ehunekoa 63 puntukoa da, eta beraz, ia bi herenek du lehen hizkuntza erdara. Kasu horretan, ia heren batek ( % 32,5) jaso du euskara etxean erdararekin batera, eta % 4,5ek euskara bakarrik.

Gurasoengandik jasotako hizkuntza, gurasoen hizkuntz-gaitasunaren arabera. Bilbo, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Bizkaian ere gurasoen euskara-gaitasunak eragin bera izan arren, badago alderik: bi gurasoak euskaldunak direnean, seme-alaben % 81ek jasotzen du euskara; hau da, hamarretik zortziren lehen hizkuntza euskara da, eta beste % 10ena euskara eta gaztelania. Beraz, % 9k ez du jasotzen euskararik guraso biak euskaldunak dituenen. Adinari erreparatur, 16-34 urte bitartekoen artean, % 5ek soilik ez du jasotzen euskararik; beraz, euskara gehiago transmititu zaie belaunaldi berriei. Halere, kontutan hartzekoa da gazteenen artean gehiago direla lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dutenak: 16-34 urte bitartekoen % 78k jaso du euskarak soilik eta % 17k euskara eta gaztelania.

Beste kasuan, gurasoen artean bakarra denean euskalduna, berriz, % 37k jaso du etxean euskara erdararekin batera, eta % 59k erdara soilik. Adinari erreparatur, 16-34 urte bitartekoen artean gehiago dira euskara eta erdara jaso dutenak ( % 49k) erdara soilik jaso dutenak baino ( % 48k). 49 urte edo gehiagokoen artean, aldiz, gurasoetako bat denean euskalduna, % 24ren lehen hizkuntza euskara eta erdara da eta lautik hirurena ( % 75) erdara; adin tarte horretan ia inork ez du euskara soilik jaso etxean gurasoetako bat euskalduna ez denean.

Gurasoengandik jasotako hizkuntza, gurasoen hizkuntz-gaitasunaren arabera. Bizkaia (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Euskal Autonomia Erkidegoan ere alde nabarmena da gurasoen gaitasunaren arabera. Bi gurasoak euskaldunak direnean % 85ek jaso du euskara soilik etxean eta ia % 5ek euskara eta gaztelania. Gazteenen artean (16-34 urte bitartekoak) euskara soilik jaso dutenen ehunekoa 85 puntukoa da ( datu orokorraren bera) baina euskara eta erdara jaso dutenena batz bestekoa baino 8 puntu handiagoa da ( % 4,9 versus % 13). Beraz, gaur egun 16-34 urte bitarte dituztenen artean, % 2k ez du euskararik jaso bi gurasoak euskaldunak dituenen.


Beste kasuan, bi gurasoetatik bakarra denean euskalduna, hamarretik lauk ( %40k) jaso du etxean euskara erdararekin batera, eta % 6k euskara soilik. 16-34 urte bitartekoen artean, erdiak pasatxok jaso du euskara erdararekin batera ( % 51k) gurasoetako bat erdalduna denean. Aldiz, 49 urtetik gorakoen artean % 28k.

Gurasoengandik jasotako hizkuntza, gurasoen hizkuntz-gaitasunaren arabera. EAE, 2021 (%)

Bi gurasoak euskaldunak



Bi gurasoetatik bakarra euskalduna



■ Euskara

■ Euskara eta erdara

■ Erdara

Iturria: VII Inkesta Soziolinguistikoa, 2021




## 5. EUSKARAREN ERABILERA

## 5.1. Euskararen erabilera etxean: Bilbo, Bizkaia eta EAE


Etxeke erabilera neurtzeko 2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua hartu da kontutan. Horren arabera, bost urte edo gehiagoko 330.956 pertsona bizi dira Bilbon. Horietatik, % 3,3k euskara erabiltzen du etxean beti edo ia beti (11.045 pertsona), eta % 7,5ek euskara eta gaztelania (24.825 pertsona).

Etxean gaztelania erabiltzen dutenak % 85,9 dira (284.217 pertsona) eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 3,3 (10.869 pertsona).




Bizkaian, berriz, bost urte edo gehiagoko 1.103.170 pertsona bizi dira. Etxean euskara soilik erabiltzen dutenak % 8,2 dira ( 90.529 pertsona); euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen dutenak, % 9,6 ( 106.367 pertsona); gaztelaniaz soilik mintzo direnak, % 79,4 ( 875.906 pertsona); eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak, % 2,8 ( 30.368 pertsona).

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan, bost urtetik gorako 2.110.702 herritar daude, eta horietatik, % 12,9k (271.482 pertsona) euskaraz egiten du soilik etxean; % 11,4k (240.158 pertsona) euskara eta gaztelania; % 72,5ek ( 1.530.923 pertsona) gaztelania soilik; eta % 3,2k (68.139 pertsona).



### 5.1.1. Euskararen erabilera etxean, bilakaera

Duela 30 urteko datuekin alderatuz gero, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa halako bi baino gehiago hazi da Bilbon (% 1,5 versus % 3,3). Etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoa ere ia bikoiztu egin da ( % 4 versus % 7,5). Aldiz, etxean gaztelania erabiltzen dutenen portzentajea 8,1 puntu jaitsi da azken hiru hamarkadetan ( % 94 versus % 85,9). Beste hizkuntzen erabilera oso-oso eskasa zen 1991n (% 0,5); 2021ean, aldiz, ehunekoa 3,3 puntukoa da.



Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. Bilbo, 1991-2021 (%)

	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
<b>1991</b>	1,5	4,0	94,0	0,5
<b>2001</b>	1,7	3,7	93,8	0,8
<b>2011</b>	2,9	3,8	91,0	2,3
<b>2021</b>	3,3	7,5	85,9	3,3

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 2021

Bizkaiko lurraldean, berriz, duela hiru hamarkadako datuekin alderatuta, etxean euskara soilik erabiltzen dutenen ehunekoa jaitsi egin da % 8,9tik (1991n) % 8,2ra (2021ean), baina euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen dutenen ehunekoak gorakada izan du: duela 30 urte % 6k egiten zuen euskaraz eta gaztelaniaz etxean, eta 2021ean, % 9,6k. Hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen ehunekoa igo egin da hiru hamarkadatan baina gero eta gehiago dira euskararekin batera gaztelania erabiltzen dutenak etxean.

Gaztelaniaz soilik egiten dutenen ehunekoa, aldiz, jaitsi egin da ( % 84,6 versus % 79,4) eta igo egin da beste hizkuntza batean soilik mintzo direnen ehunekoa ( % 0,5 versus % 2,8), batik bat immigrazioaren eraginez.

Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. Bizkaia, 1991-2021 (%)

	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
<b>1991</b>	8,9	6,0	84,6	0,5
<b>2001</b>	8,6	6,2	84,6	0,7
<b>2011</b>	8,8	6,0	83,3	2,0
<b>2021</b>	8,2	9,6	79,4	2,8

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 2021

Euskal Autonomia Erkidegoan ere euskararen erabilera trinkoa igo egin da azken 30 urteotan, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoaren hazkundearen eraginez. Izan ere, euskaraz soilik mintzo direnen ehunekoa jaitsi egin da 0,8 puntu, baina euskara eta gaztelania erabiltzen dutenena, 3,4 puntu hazi.

Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)

	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
<b>1991</b>	13,8	8,0	77,6	0,5
<b>2001</b>	13,6	8,3	77,5	0,7
<b>2011</b>	13,4	7,4	77,1	2,1
<b>2021</b>	12,9	11,4	72,5	3,2


*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak. 2021*

### 5.1.2. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera: Bilbo

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, etxean euskara gehien erabiltzen dutenak 20 urtetik beherakoak dira (% 8,5 batez beste). Adinean behera egin ahala ehunekoa hasiz doa. Aldiz, adinean gora egin ahala euskara etxean erabiltzen dutenen ehunekoa jaitsi egiten da. 55 urtetik gorakoen artean, bataz beste, % 1,6.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekorik handiena ere 20 urtetik beherakoek dute (% 17,7 batez beste), bereziki 5-9 urte bitartekoek (% 23,9). Adinak gora egin ahala, behera egiten du etxean hizkuntza biak erabiltzen dituztenen ehunekoak.

Gaztelaniaren erabilera haziz doa adinak gora egin ahala: 60 urtetik gorakoen artean, bataz beste, % 94,4. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen portzentajerik handiena 25-39 urte bitartekoek dute (% 6,8 batez beste). 65 urtetik gorakoen artean ez da apenas erabiltzen euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat.



### 5.1.3. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera, bilakaera

Adinaren bilakaerari dagokionez, etxean euskara soilik erabiltzen dutenen ehunekoa 65 urtetik beherako adin-tarte guztietan hazi da, batez ere 5-19 urte bitartekoen artean, ia 7 puntu (% 1,6 versus 8,5).

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa ere batez ere 49 urtetik beherakoen artean igo da. Aipatzekoa da 5-19 urte bitartekoen artean ehunekoa hirukoiztu egin dela (% 5,8 versus 17,8).

Gaztelaniak pisua galdu du adin-tarte gazteenetan, nahiz eta gaur egun 65 urtetik aurrekoen artean ehunekoa handiagoa izan.

Azkenik, 1991n oso gutxi ziren etxean euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean hitz egiten zutenak: adin tarte guztietan 0,8 puntutik behera.

**Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren arabera, bilakaera. Bilbo, 1991-2021 (%)**

Adina	1991				2021			
	Euskara	Biak	Gaztelania	Beste bat	Euskara	Biak	Gaztelania	Beste bat
5-19	1,6	5,8	92,3	0,3	8,5	17,8	70,2	3,5
20-34	1,2	3,9	94,4	0,5	4,0	8,8	81,1	6,0
35-49	1,5	3,8	94,1	0,6	3,4	8,7	82,7	5,2
50-64	1,3	2,6	95,4	0,7	2,1	4,8	90,7	2,4
65-79	2,2	3,6	93,7	0,5	1,4	3,2	94,7	0,7
>=80	2,9	4,2	92,5	0,4	1,2	2,5	95,8	0,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>1,5</b>	<b>4,0</b>	<b>94,0</b>	<b>0,5</b>	<b>3,3</b>	<b>7,5</b>	<b>85,9</b>	<b>3,3</b>

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak



#### 5.1.4. Euskararen erabilera etxean sexuaren arabera: Bilbo

Sexuari erreparatuz, Bilbon ez dago alde nabarmenik etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen artean: emakumezkoetan % 3,3 dira etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak, eta gizonezkoetan, berriz, % 3,4.

Euskara eta gaztelania biak erabiltzen dituztenen artean ere ez dago tarterik: % 7,5 bi kasuetan.

Gaztelaniaren kasuan aldea 0,3 puntukoa da: emakumezkoen % 86 dira etxean gaztelania soilik erabiltzen dutenak, eta gizonezkoetan, % 85,7.

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenei dagokionez, emakumezkoen % 3,2k erabiltzen du etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat, eta gizonezkoen % 3,4k.

Etxeko erabilera sexuaren arabera. Bilbo, 2021 (%)			
	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskara	3,3	3,3	3,4
Biak	7,5	7,5	7,5
Gaztelania	85,9	86,0	85,7
Beste bat	3,3	3,2	3,4

*Iturria: VII Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*

### 5.1.5. Euskararen erabilera etxean sexuaren arabera, bilakaera

Sexuari dagokionez, azken hiru hamarkadetan bai emakumezkoen artean eta bai gizonezkoen artean ere, hazi egin da etxean euskaraz egiten dutenen ehunekoa. 1991tik 2011ra bitarte emakumezkoen artean handiagoa izan da euskararen erabilera gizonezkoen artean baino, hamarren gutxi batzuk tarteko.

**Euskararen erabilera etxean sexuaren arabera. Bilbo, 1991-2021 (%)**

		Emakumezkoa	Gizonezkoa
2021	Euskaraz	3,3	3,4
	Euskaraz eta gaztelaniaz	7,5	7,5
	Gaztelaniaz	86,0	85,7
	Beste hizkuntza batean	3,2	3,4
2011	Euskaraz	3,1	2,8
	Euskaraz eta gaztelaniaz	4,0	3,7
	Gaztelaniaz	90,9	91,1
	Beste hizkuntza batean	2,1	2,4
2001	Euskaraz	1,8	1,6
	Euskaraz eta gaztelaniaz	3,8	3,5
	Gaztelaniaz	93,7	94,0
	Beste hizkuntza batean	0,7	0,9
1991	Euskaraz	1,7	1,4
	Euskaraz eta gaztelaniaz	4,2	3,8
	Gaztelaniaz	93,7	94,3
	Beste hizkuntza batean	0,5	0,6

*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak*


## 5.2. Euskararen erabilera orokorra: Bilbo, Bizkaia eta EAE

Euskarak gizartean oro har duen erabileraz jabetzeko, 2001ean indize bat eratu zen. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio.

Honako hiru erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan indizea eratzeko:

- Etxea: familia
- Lagunak
- Eremu formala: dendak, bankuak eta osasun eta udal zerbitzuak.


VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2021ean Bilbon 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 24k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean: % 6,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdaraz beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean. Aldi berean, % 10,4k euskara erabiltzen du, baina erdaraz baino gutxiago. Eta % 7,1ek euskara baina oso gutxi. Bestalde, lau bilbotarretik hiru (% 76k) beti mintzo dira erdaraz.



Bizkaiko lurraldean % 7,7 dira euskara erdarra baino gehiago erabiltzen dutenak eta % 6,8 euskara erdarra beste erabiltzen dutenak. Euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak, beraz, % 14,5 dira Bizkaian.


Aldiz, euskaraz erdaraz baino gutxiago egiten du % 11,4k eta euskara oso gutxi darabil % 6,5ek. Azkenik, hamasei urtetik gorako hiru bizkaitarretik bi (% 67,6) ez du sekula euskaraz hitz egiten.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ostera, hamasei urtetik goragoko biztanleen artean hamar biztanletik lauk euskara erabiltzen dute neurri batean ala bestean: horien artean, % 13,8 gehiago mintzo da euskaraz erdaraz baino; euskaraz eta erdarra paretsu darabiltenak % 8,2 dira; euskaraz erdaraz baino gutxiago egiten du % 11,5ek; eta euskaraz oso gutxi mintzo direnak % 5,7 dira. Aldiz, hamarretik seik ez du euskararik erabiltzen: beti mintzo dira erdaraz % 60,9.



### 5.2.1. Euskararen erabilera orokorraren bilakaera

Azken hiru hamarkadetan euskararen erabilera orokorra hazi egin da Bilbon: 1991n bilbotarren % 1,4k egiten zuen euskararen erabilera trinkoa ( % 0,2k euskaraz erdaraz baino gehiago eta % 1,2k euskaraz erdaraz beste); 2021ean, berriz, % 6,5ek ( % 2k euskaraz erdaraz baino gehiago, eta % 4,5ek euskaraz erdaraz beste). Euskaraz erdaraz baino gutxiago egiten dutenen ehunekoa ere igo egin da ( % 4,4 versus % 10,4), bai eta oso gutxi euskaraz egiten dutenena ere ( % 3,7 vs % 7,1). Aldiz, beti erdaraz mintzo direnen ehunekoak ia 15 puntu egin du behera ( % 90,5 versus % 76).



Euskararen erabileraren hazkundera orokorra izan da Bizkaiko lurraldean eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Bizkaian 1991n % 8,8k egiten zuen euskararen erabilera trinkoa (% 5,6k euskaraz erdaraz baino gehiago eta % 3,2k euskaraz erdaraz beste), eta 30 urte beranduago % 14,5ek egiten du (%7,7k euskaraz erdaraz baino gehiago eta % 6,8k euskaraz erdaraz beste). Euskaraz erdaraz baino gutxiago egiten dutenen ehunekoa ia bikoiztu egin da (% 5,9 versus % 11,4), eta euskaraz oso gutxi egiten dutenen ehunekoa ere hazi egin da (% 2,7 versus % 6,5). Erdaraz beti egiten dutenen ehunekoa aldiz jaitsi egin da: 1991n hamarretik zortzik baino gehiagok (% 82,6) egiten zuen beti erdaraz eta egun bi herenek pasatxok (% 67,6).

Euskal Autonomi Erkidegoan 7 puntuko igoera izan du euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen ehunekoak (% 15,5 versus % 22): orain 30 urte hamar herritarretik batek egiten zuen euskaraz erdaraz baino gehiago, eta 2021ean % 13,8k. Euskaraz erdaraz baino gutxiago egiten dutenen ehunekoa ia 5 puntu hazi da (% 6,8 versus % 11,5) eta euskaraz oso gutxi egiten dutenena ia 3 puntu (% 2,8 versus % 5,7). Joera orokorrari jarraiki, beti erdaraz mintzo direnen ehunekoa 14 puntu jaitsi da (% 74,9 versus % 60,9).

Euskararen erabilera orokorraren bilakaera. Bilbo, Bizkaia eta EAE, 1991-2021 (%)						
	Bilbo		Bizkaia		EAE	
	1991	2021	1991	2021	1991	2021
<b>Euskaraz erdaraz baino gehiago</b>	0,2	2	5,6	7,7	10	13,8
<b>Euskaraz erdaraz beste</b>	1,2	4,5	3,2	6,8	5,5	8,2
<b>Euskaraz erdaraz baino gutxiago</b>	4,4	10,4	5,9	11,4	6,8	11,5
<b>Oso gutxi euskaraz</b>	3,7	7,1	2,7	6,5	2,8	5,7
<b>Beti erdaraz</b>	90,5	76	82,6	67,6	74,9	60,9


*Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*

## 5.2.2. Euskararen erabilera familian (etxean): Bilbo, Bizkaia eta EAE

Aurreko puntuan (5.1. puntuan) etxeko erabilera neurtzeko 2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua hartu da kontutan, unibertsoa 5 urte edo gehiagoko herritarrak izaki.

Puntu honetan, aldiz, familian (etxean) egiten den erabilera orokorra neurtuko da, eta horretarako VII. Inkesta Soziolinguistikotik jasotako datuak hartuko dira oinarri. Inkestak hamasei urte edo gehiagoko biztanleen datuak jasotzen ditu.

Etxeko kideak elkarrekin daudenean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 6 dira Bilbon. Etxeko kide bakoitzarekin egiten den erabilerari dagokionez, bikotekidearekin % 3,9k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago; seme-alabekin euskara trinkoa egiten dutenak % 8,5 dira; neba-arrebekin, % 6; eta gurasoei dagokienez, aitarekin % 5ek egiten du euskaraz erdaraz beste edo gehiago, eta amarekin, % 5,2k.



Bilboko datuekin alderatuta, badaude zenbait antzekotasun Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Bizkaiko hiriburuan bezalaxe, Bizkaian eta EAEn ere bikotekidearekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa txikiagoa da gainontzeko familiako kideekin erabiltzen dutenen ehunekoa baino. Bizkaian % 11,1ek egiten dute euskararen

erabilera trinkoa bikotekidearekin, eta EAEn % 17,2k. Aldiz, kontrako kasuan, euskararen erabilerarik handiena seme-alabekin egiten dute ( % 17,7 eta % 24 hurrenez hurren).

Etxeko kideak elkarrekin daudenean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 11,6 dira Bizkaian eta % 19,9 EAEn.

Familian euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak Bilbo, Bizkaia, EAE, 2021 (%)

	<b>Bilbo</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>EAE</b>
<b>Familia (orokorra)</b>	<b>6,0</b>	<b>11,6</b>	<b>19,9</b>
<b>Bikotekidearekin</b>	3,9	11,1	17,2
<b>Seme-alabekin</b>	8,5	17,7	24,0
<b>Amarekin</b>	5,2	15,2	18,6
<b>Aitarekin</b>	5,0	12,4	18,3
<b>Neba-arrebekin</b>	6,0	14,7	21,1

*Iturria: VII Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*




### 5.2.3. Euskararen erabilera lagunartean eta eremu formalean: Bilbo, Bizkaia eta EAE

2021ean hamasei urtetik gorako bilbotarren % 8,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, eta % 12,6k lankideekin.

Dendariekin bilbotarren ia % 4,9 mintzaten da euskaraz erdaraz beste edo gehiago, eta bankuko langileekin 0,9 puntu gehiago (% 5,8).

Eremu formalari dagokionez, osasun zerbitzuetakoekin % 8ak egiten du euskararen erabilera trinkoa. Aipatzeko da udal zerbitzuetako langileekin erabilera hazi egiten dela eremu formalean: % 11,3koa mintzaten da euskaraz erdaraz beste edo gehiago.



Bizkaiko lurraldean, ostera, erabilerarik handiena lankideekin egiten dute (% 20,4k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago) eta txikiena, berriz, dendariekin (% 13,8k). EAEn udal zerbitzuetakoekin aritzen dira gehien euskaraz erdara beste edo gehiago (% 27,4), eta gutxien, aldiz, bankukoekin (% 22,1).

Lagunartean eta eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak.  
Bilbo, Bizkaia eta EAE, 2021 (%)

	<b>Bilbo</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>EAE</b>
<b>Lagunekin</b>	<b>8,2</b>	<b>15,1</b>	<b>22,1</b>
<b>Lankideekin</b>	12,6	20,4	26,8
<b>Dendariekin</b>	4,9	13,8	22,4
<b>Bankukoekin</b>	5,8	14,6	22,1
<b>Osasun zerbitzukoekin</b>	8	15,6	23,1
<b>Udal zerbitzukoekin</b>	11,3	19,2	27,4

*Iturria: VII Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*


## 6. EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA ETA BESTE ZENBAIT IRITZI

## 6.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera: Bilbo, Bizkaia eta EAE

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten lau iritziren arabera tipologia eratu da. Honako hauek dira tipologia osatzeko aintzat hartu diren iritziak:


- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da.
- Hobe da jendeak ingelesa ikatea euskara ikatea baino (ados ez daudenak dira euskara sustatzearen aldekoak).
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikatea.
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz.

2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Bilboko hamasei urte edo gehiagoko herritarren % 57,2 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, heren bat (% 33,2) ez alde ez aurka, eta 9,6 aurka.



Bizkaiko lurraldearekin konparatuta, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoa 7,8 puntu handiagoa da Bizkaian (% 65). Aldiz, euskara sustatzearen aurka daudenen ehunekoa apur bat handiagoa da hiriburuan: % 9,6 versus % 8.

Euskal Autonomia Erkidegoan herritarren bi heren (% 67) dago euskara sustatzearen alde; % 27 ez alde ez aurka; eta % 6,8 aurka.




Jarreraren tipologia osatzeko erabili diren iritziak eta bilbotarren erantzunak honakoak dira:

Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela uste du bilbotarren % 69,7k; % 6,9 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, % 22,5 dira iritzi horren aurka daudenak eta beste % 0,8k ez du erantzun.

Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino uste du bilbotarren % 31,4k; % 22 ez dago iritzi horren ez alde ez aurka; aldiz, % 44,5 dira iritzi horren aurka daudenak, eta beraz, euskara sustatzearen aldekoak direnak. Beste % 2,1ek ez du erantzun.

Haur guztiek euskara ikasi beharko luketela uste du bilbotarren % 88,2k, % 4,3 ez dago ez alde ez aurka, % 7,5 aurka dago eta % 0,2k ez du erantzun.

Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz uste du bilbotarren % 48,1ek, % 16,3 ez dago ez alde ez aurka, % 31,5 aurka dago eta % 4,2k ez du erantzun.




Bizkaitarren erantzunak, berriz, honakoak dira:

Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela uste du bizkaitarren % 73,9k, % 6,1 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, % 19,5 dira iritzi horren aurka daudenak eta beste % 0,6k ez du erantzun.

Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino uste du bizkaitarren % 24,8k; % 25,8 ez dago iritzi horren ez alde ez aurka; aldiz, % 47,6 dira iritzi horren aurka daudenak, eta beraz, euskara sustatzearen aldekoak direnak. Beste % 1,8k ez du erantzun.

Haur guztiek euskara ikasi beharko luketela uste du bizkaitarren % 89,5k, % 4,2 ez dago ez alde ez aurka, % 5,8 aurka dago eta % 0,4k ez du erantzun.

Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz uste du bizkaitarren % 49,1ek, % 20,4 ez dago ez alde ez aurka, % 24,4 aurka dago eta % 6,1ek ez du erantzun.



Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan, jarreraren tipologia osatzeko erabili diren iritziak eta erantzunak honakoak dira:


Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela uste du % 74,6k, % 6,3 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, % 18,0 dira iritzi horren aurka daudenak eta beste % 0,9k ez du erantzun.

Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino uste du EAeko herritarren % 2,7k; % 24,8 ez dago iritzi horren ez alde ez aurka; aldiz, % 50,9 dira iritzi horren aurka daudenak, eta beraz, euskara sustatzearen aldekoak direnak. Beste % 1,5ek ez du erantzun.

Haur guztiek euskara ikasi beharko luketela uste du % 89,3k, % 4,7 ez dago ez alde ez aurka, % 5,6 aurka dago eta % 0,4k ez du erantzun.

Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz uste du % 49,3k, % 21,1 ez dago ez alde ez aurka, % 22,6 aurka dago eta % 6,9k ez du erantzun.

Jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritziak. EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021



## **6.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera: Bilbo, Bizkaia eta EAE**




Azken hiru hamarkadetan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera indartu egin da bai Bilbon, bai Bizkaian. Hiriburuan aldeko jarrera 11 puntu igo da (% 46 vs 57,2) 1991tik 2021era. Ez alde ez kontra daudenen ehunekoa jaitsi edin ia 2 puntu (% 35,0 versus % 33,2), eta euskararen erabilera sustatzearen kontra daudenen ehunekoa, berriz, erdira jaitsi da (% 19,1 vs % 9,6).

Lurralde historikoan ere ia 11 puntuko igoera izan du aldeko jarrerak. 1991n % 54,3 zegoen euskara susatzearen alde eta 2021ean, % 65, ia bi herenak. Aldiz, ez alde ez kontra daudenen ehunekoa 3 puntu jaitsi da (% 30,3 versus % 27), eta kontrako iritzia 7,4 puntu (% 15,4 vs % 8).

Euskal Autonomia Erkidegoan 12,1 puntu hazi da aldeko jarrera (% 54,9 versus % 67); aldiz, aurkakoen ehunekoa % 14tik % 6,7ra jaitsi da.



Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. 1991-2021 (%)

1991



■ Alde    ■ Ez alde ez aurka    ■ Aurka

2021




■ Alde    ■ Ez alde ez aurka    ■ Aurka


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

### 6.3. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, hizkuntza-gaitasunaren, adinaren, sexuaren eta jatorriaren arabera: Bilbo

Euskararekiko jarrera adinaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehuneko handiena dutenak 16-24 urte bitarteko bilbotarrak direla (% 69,1); aldiz, 65 urte edo gorakoak dira ehuneko txikiena dutenak (% 48,2).



Sexuari erreparaturik, gizonenak emakumeenak baino aldeko jarrera handiagoa dute Bilbon (% 57,8 versus % 56,7). Halere, aurkako jarrera ere handiagoa dute gizonenak emakumeenak baino: % 10,2 gizonenak eta % 9,1 emakumeenak.



Biztanleen jatorriak ere badu zer ikusirik euskararen erabilera sustatzearen aldeko eta kontrako jarrerekin. Horrela, Bilbon jaioak eta gurasoak ere bertokoak dituztenen % 69,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, eta Bilbon jaioak baina gurasoetako bat etorkina dutenen % 56,2. Era berean, berton jaioak baina guraso biak kanpokoak dituzten erdia baino gutxiago dago euskara sustatzearen alde (% 45,6). Azkenik, etorkinen % 46,4 dago euskara sustatzearen alde.

Euskararen erabilera sustatzearen aurka daude Bilbon jaioak direnen eta gurasoak bertokoak dituztenen % 5,1. Bestalde, bertokoak izanik, gurasoetako bat kanpokoak dutenen % 15,9 euskararen erabilera sustatzearen aurka dago, bi gurasoak kanpokoak dituztenen % 10,5 eta etorkinen % 12,2.

Azkenik, asko dira ez alde ez aurka daudenak, batez ere kanpoan jaioak (% 41,4) eta gurasoak kanpoan jaioak dituztenak (% 43,9).

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, jatorriaren arabera. Bilbo, 2021 (%)

	Bertokoa	Bertokoa, ama ala aita etorkina	Bertokoa, ama eta aita etorkina	Etorkina
Alde	69,3	56,3	45,6	46,4
Ez alde ez aurka	25,6	27,9	43,9	41,4
Aurka	5,1	15,9	10,5	12,2

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021


#### 6.4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, hizkuntza-gaitasunaren, adinaren, sexuaren eta jatorriaren arabera: Bizkaia

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Bizkaian euskararen erabilera sustatzearen alde agertu da euskaldunen % 89,7, euskaldun hartzaileen % 67,5 eta erdaldunen % 49,2. Euskaldunen artean ia inor ez dago (%0,9) euskararen erabilera sustatzearen aurka.


Euskara sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren arabera. Bizkaia, 2021 (%)			
	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
Alde	89,7	67,5	49,2
Ez alde ez aurka	9,4	25,6	38,0
Aurka	0,9	6,9	12,7

*Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*

Bizkaian euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehuneko handiena dutenak 16-24 urte bitarteko bizkaitarrak dira (% 71,5); aldiz, 50-64 urte bitartekoek dute (% 59,1) txikiena.



Emakumezkoek gizonezkoek baino aldeko jarrera handiagoa dute (% 65,8 versus % 64,4). Halere, aurkako jarrera ere handiagoa dute emakumezkoek: % 7,3 emakumezkoek eta % 8,7 gizonezkoek.



Bizkaiko lurraldean bertan jaiok eta gurasoak ere bertokoak dituztenen % 74,4 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, eta Bizkaian jaiok baina gurasoetako bat etorkina dutenen % 64,7. Era berean, bertan jaiok baina guraso biak kanpokoak dituzten erdia baino gehiago dago euskara sustatzearen alde (% 56,9). Azkenik, etorkinen % 52,8 dago euskara sustatzearen alde.

Euskararen erabilera sustatzearen aurka daude Bizkaian jaiok direnen eta gurasoak bertokoak dituztenen % 4,9. Bestalde, bertokoak izanik, gurasoetako bat kanpokoak dutenen % 9,8 euskararen erabilera sustatzearen aurka dago, bi gurasoak kanpokoak dituztenen % 11,3 eta etorkinen % 10,1.

Azkenik, asko dira ez alde ez aurka daudenak, batez ere kanpoan jaiok (% 37,1) eta gurasoak kanpoan jaiok dituztenak (% 31,8).

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, jatorriaren arabera. Bizkaia, 2021 (%)

	Bertokoa	Bertokoa, ama ala aita etorkina	Bertokoa, ama eta aita etorkina	Etorkina
Alde	74,4	64,7	56,9	52,8
Ez alde ez aurka	20,7	25,5	31,8	37,1
Aurka	4,9	9,8	11,3	10,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021




## 6.5 Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, hizkuntza-gaitasunaren, adinaren, sexuaren eta jatorriaren arabera: EAE

Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen erabilera sustatzearen alde agertu da euskaldunen % 90,1, euskaldun hartzaileen % 64,6 eta erdaldunen % 49,4. Euskaldunen artean ia inor ez dago (%0,7) euskararen erabilera sustatzearen aurka.


Euskara sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2021 (%)			
	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
Alde	90,1	64,6	49,4
Ez alde ez aurka	9,2	28,5	39,0
Aurka	0,7	6,9	11,6

*Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehuneko handiena dutenak 16-24 urte bitarteko EAEko herritarrak dira (% 72,7); aldiz, 50-64 urte bitartekoek dute (% 62,7) txikiena.



Emakumezkoek gizonezkoek baino aldeko jarrera handiagoa dute (% 67,1 versus % 66,8), eta aurkako jarrera txikiagoa: emakumezkoek: % 6,5 emakumezkoek eta % 7,1 gizonezkoek.



Euskal Autonomia Erkidegoan bertan jaiok eta gurasoak ere bertokoak dituztenen % 76,5 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, eta EAEn jaiok baina gurasoetako bat etorkina dutenen % 65,8. Era berean, bertan jaiok baina guraso biak kanpokoak dituzten erdia baino gehiago dago euskara sustatzearen alde (% 58,6). Azkenik, etorkinen % 52,5 dago euskara sustatzearen alde.

Euskararen erabilera sustatzearen aurka daude EAEn jaiok direnen eta gurasoak bertokoak dituztenen % 4,2. Bestalde, bertokoak izanik, gurasoetako bat kanpokoak dutenen % 8,3 euskararen erabilera sustatzearen aurka dago, bi gurasoak kanpokoak dituztenen % 10,0 eta etorkinen % 9,1.

Azkenik, asko dira ez alde ez aurka daudenak, batez ere kanpoan jaiok (% 38,4) eta gurasoak kanpoan jaiok dituztenak (% 31,4).


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, jatorriaren arabera. EAE, 2021 (%)				
	Bertokoa	Bertokoa, ama ala aita etorkina	Bertokoa, ama eta aita etorkina	Etorkina
Alde	76,5	65,8	58,6	52,5
Ez alde ez aurka	19,3	25,9	31,4	38,4
Aurka	4,2	8,3	10,0	9,1

*Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*

## 6.6. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi: Bilbo

Euskarari buruzko interesari dagokionez, bilbotarren erdiek baino gehiagok interes handia edo oso handia dutela adierazi dute 2021ean (% 55,3), % 15,4k interes apur bat duela adierazi du, % 16,3k interes txikia duela eta, azkenik, % 11,3k ez duela bat ere interesik.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, Bilboko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 60,2k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahi luke eta % 30,1ek B ereduan.



Bestalde, 16 urte edo gehiagoko bilbotarren % 90,1ek etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste du eta % 7,7k euskara hutsean.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta % 35,8k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakitegatik, eta % 24,9k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

Eusko Jaurlaritzak euskara sustatzeko egindako lanaren balorazioari dagokionez, bilbotarren % 54,5ak dio euskara sustatzeko egindako lana egokia dela eta % 23,7k desegokia. Horrezaz gain, % 19,5ek ez daki edo ez du erantzuten, eta % 2,2ri berdina zaio.


Euskarari buruz dauden aurreiritzi batzuek gure gizartean zenbateraino dauden erroturik ezagutu nahian, Bilboko inkestatuei iritzia eskatu zaie. Laburbilduz, Bilboko emaitzak honakoak dira:

- Bilboko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean paretsu dira euskarak gaztelaniak duen garrantzia izango duela uste dutenak eta kontrakoa uste dutenen artean (% 39,5 versus % 39,4 hurrenez hurren).
- Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko iritziari buruz, % 42 alde dago eta ia herritarren erdiak (% 49,7 aurka).
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, Bilboko biztanleen % 52,8 ados dago eta ia heren bat (% 32,1) aurka.
- "Euskaldunok beti euskaraz aritzea nahiz eta guztiek ez jakin" iritziaren aurka daude bilbotar gehienak (% 76,2).
- Azkenik, euskara ez dago galtzeko arriskuan gehienek ustez (% 63,1).

## 6.7 Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi: Bizkaia

Bizkaiko lurraldean, euskarari buruzko interesari dagokionez, hamarretik seik interes handia edo oso handia duela adierazi du 2021ean (% 60k), % 15,7k interes apur bat duela adierazi du, % 12,8k interes txikia duela eta, azkenik, % 10,4k ez duela bat ere interesik.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, Bizkaiko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 71,9k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahi luke eta % 20,0k B ereduan.



Bestalde, 16 urte edo gehiagoko bizkaitarren % 89,2k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste du eta % 8,4k euskara hutsean.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta % 35,2k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakiteagatik, eta % 19,5ek erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

Eusko Jaurlaritzak euskara sustatzeko egindako lanaren balorazioari dagokionez, bizkaitarren % 51,7ak dio euskara sustatzeko egindako lana egokia dela eta % 23,8k desegokia. Horretaz gain, % 23k ez daki edo ez du erantzuten, eta % 1,4ri berdina zaio.


Euskarari buruz dauden aurreiritzi batzuek gure gizartean zenbateraino dauden erroturik ezagutu nahian, Bizkaiko inkestakuei iritzia eskatu zaie. Laburbilduz, Bizkaiko emaitzak honakoak dira:

- Bizkaiko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean gehiago dira uste dutenak euskarak gaztelaniak duen garrantzia izango duela kontrakoa uste dutenak baino (% 42,9 versus % 32,8 hurrenez hurren).
- Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko iritzia buruz, % 42,3 alde dago eta ia herritarren erdiak (% 45,6 aurka).
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, Bizkaiko biztanleen % 59,1 ados dago eta ia laurden bat (% 24,4) aurka.
- "Euskaldunok beti euskaraz aritzea nahiz eta guztiek ez jakin" iritziaaren aurka daude bizkaitar gehienak (% 71,4).
- Azkenik, euskara ez dago galtzeko arriskuan gehienek ustez (% 65).

## 6.8 Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi: EAE

Euskal Autonomia Erkidegoan, euskarari buruzko interesari dagokionez, hamarretik seik interes handia edo oso handia duela adierazi du 2021ean (% 63,2k), % 15,2k interes apur bat duela adierazi du, % 11,5ek interes txikia duela eta, azkenik, % 9,5ek ez duela bat ere interesik.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 73,6k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahi luke eta ia % 20k B ereduan.



Bestalde, EAEko 16 urte edo gehiagoko herritarren % 88,2k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste du eta % 9,5ek euskara hutsean.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta % 36,8k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakitegatik, eta % 22,4k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.



Eusko Jaurlaritzak euskara sustatzeko egindako lanaren balorazioari dagokionez, EAEko herritarren % 49,4k dio euskara sustatzeko egindako lana egokia dela eta % 23,3k desegokia. Horretaz gain, % 25,4k ez daki edo ez du erantzuten, eta % 1,9ri berdina zaio.

Euskarari buruz dauden aurreiritzi batzuek gure gizartean zenbateraino dauden erroturik ezagutu nahian, inkestatuei iritzia eskatu zaie. Laburbilduz, EAEko emaitzak honakoak dira:

- EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean gehiago dira uste dutenak euskarak gaztelaniak duen garrantzia izango duela kontrakoa uste dutenak baino (% 43,1 versus % 30,6 hurrenez hurren).
- Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko iritziari buruz, % 45,9 alde dago eta % 42,6 aurka.
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, EAEko biztanleen % 62,0 ados dago eta ia laurden bat (% 23,8) aurka.
- "Euskaldunok beti euskaraz aritzea nahiz eta guztiak ez jakin" iritziaren aurka daude EAEko herritar gehienak (% 69,3).
- Azkenik, euskara ez dago galtzeko arriskuan gehienek ustez (% 63,1).

## 7. LABURBILDUZ

### **BIZTANLERIAREN BILAKAERA**

- Bilboko gizartea gero eta zaharragoa da. Azken hamarkadetan biztanleria galtzeaz gain, zahartze prozesuak jarraipena izan du Bilbon, bizi itzaropen handiaren eta jaiotza-tasa txikiaren eraginez. 1981-2021 epean, 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak 13,6 puntuko igoera izan du Bizkaiko hiriburuan. Hain zuzen ere, 1981. urtean bilbotarren % 10,8k (42.533 herritar) zeukan 65 urte edo gehiago; 2021ean, aldiz, % 24,4k (83.610 herritar).
- Atzerrian jaiotako biztanleen hazkundera handia da azken bi hamarkadetan: 2001az geroztik atzerrian jaiotakoen ehunekoa ia boskoiztu egin da Bilbon.

### **HIZKUNTZA EREDUAK**

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik kontutan hartuta, D ereduari matrikulatutako ikasleen ehunekoa ikasturtez ikasturte hazi egin da. 1991/1992 ikasturtean ikasle bilbotarren % 12,7 matrikulatu ziren D ereduari; 2021/2022 ikasturtean, aldiz, ia hirutik bi: % 63.

### **HIZKUNTZA-GAITASUNA**

- Bost urte edo gehiagoko bilbotarren % 29,9 euskalduna da, % 15,9 euskaldun hartzailea, eta % 54,2, erdalduna. Gaur egun 98.805 euskaldun daude Bilbon.
- Azken hamarkadetako gazteen euskalduntze prozesua agerikoa da, nagusiki euskarazko hezkuntzari eta euskaltegiei esker: bost eta hogeita hamar urte bitarteko bilbotarren % 70,1 euskalduna da gaur egun, eta hogeitaz hamar urtetik beherakoan artean, batzuetan beste, hamarretik zortzi dira gai euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta

hitz egiteko. 1991n bost eta hemeretzi urte bitarteko bilbotar euskaldunen ehunekoa ez zen % 20ra iristen.

### **GAITASUN ERLATIBOA: ERRAZTASUNA**

- Bilbon 16 urte edo gehiagoko euskaldunen % 8k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz egiteko baino, hau da, euskal elebidunak dira. Bi hizkuntzetan (euskara eta erdara) erraztasun bera du lautik batek (%25,5), eta hirutik bi erdal elebidunak dira.
- Azken hiru hamarkadetan euskal elebidunen ehunekoa jaitsi egin da Bilbon. Horrek ez du esan nahi kopurua murriztu egin denik. Kontuan hartu behar da denbora tarte horretan Bilboko euskaldunen kopurua ia hirukoiztu egin dela ( 34.429 euskaldun 1991n versus 98.805 2021ean); azken hamarkadetan euskaldun kopuruaren hazkundera handia izan da Bilbon, batik bat eskolaren bitartez euskaldundu direlako belaunaldi berriak, eta kontutan hartu behar da euskaldun berri horietako askoren lehen hizkuntza erdara dela edo erdara ere badela euskararekin batera. Gaur egun Bilbon lau euskaldunetik hiru ( % 76) euskaldun berriak dira. Horrek eragin zuzena dauka gaitasun erlatiboan, lehen hizkuntza lotuta dagoelako hizkuntza hori mintzatzeko erraztasunarekin.

### **LEHEN HIZKUNTZA**

- Bilbon bost urte edo gehiagoko biztanleen % 4,9k euskara soilik jaso du etxean eta beste % 4,6k euskara eta gaztelania batera. Era berean hamarretik zortzi lagunek baino gehiagok (% 84,7k) gaztelania soilik jaso du etxean, eta % 5,8k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat.
- Azken urteetako immigrazioaren eraginez, gero eta hizkuntza gehiago dira euskaraz eta gaztelaniaz gain entzuten direnak gure kaleetan (arabiera, errumaniera, wolofera, yukatakera, txinera, susuera, tamilera, hindia...), batez ere 30-39 urte bitarteko gazte helduen artean: % 11k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du.

- Lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, asko aldatu da euskara soilik etxean jaso dutenen multzoa. Duela 35 urte lehen hizkuntza euskara soilik zutenen ehunekorik altuenak adin-talde nagusiek zituzten: 65 urtetik gorakoen ehunekoa 10 puntu baino handiagoa zen batz bestea, eta adinean behera egin ahala txikiagoa zen etxean euskara soilik jasotzen zutenen portzentajea, justu gaur egun gertatzen denaren kontrakoa: gaur egun lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handienak 10-14 eta 15-19 urte bitarteko adin-taldeen dute ( % 9 eta % 8,3 hurrenez hurren); beraz, gaur egun euskara gehiago transmititzen da.

### **EUSKALDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA**

- Bilbon bost urte edo gehiagoko euskaldunen % 11,7k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira. Hortaz, 11.594 euskaldun zahar daude Bilbon. Bilboko euskaldunen % 11,8k euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebidunak dira. Azkenik, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak % 76,5 dira, hau da, euskaldun berriak dira. Euskaldun berriak etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.
- Euskaldunen multzoa aldatu egin da azken 35 urteotan. 1986an herenak pasatxo euskaldun zaharrak ziren Bilbon (% 38,4) eta gaur egun ehunekoa txikiagoa da (% 11,7). Aldiz, 1986n euskaldun berrien ehunekoa oraingoarena baino 32,5 puntu txikiagoa zen (% 44,0 versus % 76,5).

### **FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA**

- Familia bidez jasotzen den hizkuntza-transmisioan berebiziko eragina dauka gurasoen euskara-gaitasunak. Bilbon bi gurasoak euskaldunak dituztenen % 61k euskara soilik jaso du etxean; hau da, bi gurasoak euskaldunak direnean hamar gurasotik seik euskara soilik transmititzen die seme-alabei, eta euskara eta erdara batera jasotzen dutenen ehunekoa 18,7 puntuko da. Aldiz, bi gurasoetatik bat soilik denean euskalduna, ia bi herenek erdara du lehen hizkuntza. Kasu horretan, ia heren batek ( % 32,5) jaso du euskara etxean erdararekin batera, eta % 4,5ek euskara bakarrik.

## **EUSKARAREN ERABILERA**

- Bilbon 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 24k euskara erabiltzen du neurri batean edo bestean: % 6,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean. Aldi berean, % 10,4k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Eta % 7,1ek euskara baina oso gutxi. Bestalde, lau bilbotarretik hiru (% 76k) beti mintzo dira erdaraz.
- Azken hiru hamarkadetan euskararen erabilera orokorra hazi egin da Bilbon: 1991n bilbotarren % 1,4k egiten zuen euskararen erabilera trinkoa (% 0,2k euskaraz erdaraz baino gehiago eta % 1,2k euskaraz erdaraz beste); 2021ean, berriz, % 6,5ek (% 2k euskaraz erdaraz baino gehiago, eta % 4,5ek euskaraz erdaraz beste).
- Duela 30 urteko datuekin alderatuz gero, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa halako bi baino gehiago hazi da Bilbon (% 1,5 versus % 3,3).
- Etxeko kideak elkarrekin daudenean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 6 dira Bilbon. Etxeko kide bakoitzarekin egiten den erabilerari dagokionez, bikotekidearekin % 3,9k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago; seme-alabekin euskara trinkoa egiten dutenak % 8,5 dira; neba-arrebekin, % 6; eta gurasoei dagokienez, aitarekin % 5ek egiten du euskaraz erdaraz beste edo gehiago, eta amarekin, % 5,2k.

## **EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA**

- Azken hiru hamarkadetan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera indartu egin da bai Bizkaiko hiriburuan: aldeko jarrera 11 puntu igo da (% 46 vs 57,2) 1991tik 2021era. Ez alde ez kontra daudenen ehuneko ere igo egin da, 6 puntu (% 27 versus % 33,2).
- Bilboko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 60,2k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahi luke eta % 30,1ek B ereduan.

- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, Bilboko biztanleen % 52,8 ados dago eta ia heren bat (% 32,1) aurka.